



MOVISTAR INTERNET (BANDA ANCHA FIJA) ZERBITZUAREN BALDINTZA OROKORRAK

1. artikulua.- HELBURUA ETA ONESPENA

1.1.- Baldintza Orokorrek araututako kontratua

Ondoko Baldintza Orokor hauek (aurrerantzean, "Baldintza Orokorrak") TELEFÓNICA DE ESPAÑA, S.A.U. enpresaren (aurrerantzean, "MOVISTAR"; IFK zk.: A-82018474; egoitza: Madril, Gran Vía 28, 28013; Madrilgo Merkataritza Erregistroko inskripzioa: 13.170 liburukia; 0 liburua; 8. sekzioa; M-213.180 orria) eta zerbitzuko BEZEROAREN (aurrerantzean, "BEZEROA") arteko harremanak arautzen dituzte, **Movistar Internet** (banda ancha fija) zerbitzua egiteko, dituen edozein sarbide-motatan, ADSL edo Fibra Óptica (aurrerantzean, "Zerbitzua"), I. Eranskinean agertzen den prezioaren truke.

1.2.- Baldintza Orokorren onarpena

Baldintza Orokor hauek argi eta garbi onartzea ezinbestekoa da MOVISTAR-ek zerbitzua egin dezan. Ildo horretan, bezeroak adierazten du behar bezala irakurri, ulertu eta onartu dituela zerbitzua aplikatzeko baldintza orokor hauek, kontratazioa egin aurretik, web-orri honetan uneoro bere eskura jarritakoak: <http://www.movistar.es/contratos>.

Halaber, zerbitzua erabiltzeak berekin dakar bezeroak onartzea, hemengo Baldintza Orokor hauek onartu ostean, MOVISTAR-ek berari jakinarazitako ohar, erabilera-araudi eta jarraibide guztiak; baldin eta horretarako emandako epearen barruan onartuko ez balitu, BEZEROAREN kontratua bukatutzat emango litzateke.

2.- XEDEA

Honako Baldintza hauek MOVISTAR-ek BEZEROARI zerbitzua ematea arautzen dute, I. eranskinean jasota dagoen prezioaren truke.



3.- ZERBITZUAREN DESKRIBAPENA

ZERBITZUAK aukera ematen du abiadura handiko Internet eskuratzeko, eta oinarrizko telefono-zerbitzuarekin aldi berean funtzionatzen du, baina nork bere tarifa ezarrita.

ZERBITZUA Tarifa Plana 24 horas fakturazio aukeran eskaintzen denez, BEZEROAK kontsumo mugarik gabe eskuratu ahal izango du era iraunkorrean, Baldintza Partikularretan berariaz adierazita dauden kasuetan izan ezik.

Erabiltzaileari abiadura eraginkorra mugatzeko funtsezko eragileen berri emango dio MOVISTAR-ek BEZEROARI zerbitzua kontratatu baino lehen, eta bereizi egin beharko ditu operadoreak kontrolatzen dituenak alde batetik, eta operadoreari ez dagozkionak, beste aldetik.

ADSL Zerbitzuak prestazio hauek ditu:

- Abiadura handiko Interneterako sarbidea.
- Alokairu-erregimenean kontratatutako teknologiar dagokion konektibitateko ekipamendua, aukerakoa, kontratazioko modalitatearen arabera.
- BEZEROARENTZAKO arreta zerbitzuaren inguruan (aurrerantzean, "Bezzeroarentzako Arreta Zerbitzua").
- Zerbitzuaren Aukera Gehigarri batzuk (aurrerantzean, "Aukera Gehigarriak").

Bezzeroak aukerako bezala eskatu ahal izango du tresneria bere etxera eramatea eta instalatzea, eta orduan prezioei buruzko I. Eranskinean zehaztuta dagoen instalazioko kuota ordaindu beharko du.

Fibra Óptica bitartez (hemendik aurrera "Fibra") eskuratzeko aukera motaren barruan, zerbitzuak prestazio hauek biltzen ditu:

- Abiadura handiko Interneterako sarbidea.
- Alokairu-erregimenean kontratatutako teknologiar dagokion konektibitateko ekipamendua, aukerakoa, kontratazioko modalitatearen arabera.
- Eskuratzeko teknologiarako ekipamendu egokia.
- Bezzeroarentzako arreta zerbitzuaren inguruan.
- Zerbitzuaren aukera gehigarri batzuk.

ZERBITZUAK ez du ahots-zerbitzurik barnean hartzen. ZERBITZUA kontratatzean edo horren ondoren BEZEROARI jakinarazitako telefono-zenbakia Movistar-en barne



erabilerako zenbaki bat da, ZERBITZUARI lotuta egin beharrezko administrazioko kudeaketak egiteko baizik erabiltzen ez dena, eta, beraz, ez dago eramangarritasunaren mende.

4.- ZERBITZUAREN PRESTAZIOA

Zerbitzuak bi sarbide-mota aurkezten ditu: ADSL eta Fibra.

ADSL zerbitzua abiadura handiko Internet eskuratzeko zerbitzu iraunkorra da, eta oinarrizko telefono-zerbitzuarekin aldi berean funtzionatzen du, baina nork bere tarifa ezarrita.

Fibra zerbitzua zuntz optikoaren bitartez abiadura handiko Internet eskuratzeko zerbitzu iraunkorra da.

Zerbitzua Tarifa Plana 24 horas fakturazio aukeran eskainiko denez, bezeroak kontsumo mugarik gabe eskuratu ahal izango du zerbitzua era iraunkorrean, Baldintza Partikularretan berariaz adierazita dauden kasuetan izan ezik.

4.1.- Zerbitzua kontratatzeako eskakizunak.

4.1.1.- Ekipo informatikoa

Zerbitzua eman ahal izateko, BEZEROAREN ekipamendu informatikoak beharrezko ezaugarri teknikoak izan beharko ditu eskura; ezaugarri horiek zein diren jakiteko, helbide honetara jo: URL:<http://www.movistar.es>) Ekipamendu hori ez dago zerbitzuan sartuta.

ADSL zerbitzuaren kasuan, beharrezkoa da instalazioko etxebizitzan telefono-hargune bat izatea modem/routerra kokatuko den gunetik hiru metro baino gutxiagora.

4.1.2.- Konektibitateko ekipamendua

Zerbitzua egoki egiteko, beharrezkoa da BEZEROAK emandako sarbide-teknologiarako ekipamendu egokia izatea.

- ADSL zerbitzurako, BEZEROAK konektibitateko ekipo hartzaile/igorle bat eduki beharko du (modem/routerra).



- Fibra zerbitzurako, hargune optikoa instalatu eta konfiguratu beharko du etxean (Sare Amaierako Puntu Optikoa), bai eta seinale optikoak jasotzeko ekipo egokia (ONT), hargune optikoaren eta ONTren artean zuntz optikoko kable-sarea eta konektibitateko ekipo hartzaile/igorle bat ere (modem/routerra).

Behar den ekipamendu horri dagokionez, 4.7 klausulan deskribatutakoari jarraiki, aukeran, BEZEROAK routerra, ONTa edo Smart Wifi ekipo integratua alokatzeko zerbitzuaren prestazioa kontratatu ahal izango du, Movistar-ek abiadura handiko Internet sarbidea egiteko (hemendik aurrera, "konektibitateko ekipoak edo ekipamendua") edozein sarbide-motatan. Horiek kontratatzeke eta funtzionatzeko baldintzak alokairu hori arautzen duten baldintzen arabera zuzenduko dira, eta www.movistar.es helbidean eta 4.7 klausulan daude argitaratuta.

4.1.3.- Sarbide telefonikoa

Zerbitzua egiteko, BEZEROAREN telefono-sarbideak honako ezaugarri hauek izan beharko ditu:

- (i) BEZEROAREN linearen jabe den telefono-zentralak eskura izan beharko du ADSL edo Fibra zerbitzua, hurrenez hurren.
- (ii) Haren telefono-linea ez da konektatuta egongo zerbitzuarekin bateraezina den ekipo edo zerbitzu batekin.
- (III) Begiztaren kualifikazioa: telefono-linea batzuk bateraezinak izan daitezke zerbitzuarekin, luzera, kalibrea edo beste parametro tekniko batzuen arabera.

4.1.4.- Bateraezintasunak.

Zerbitzu hauek ez dira bateragarriak ADSL zerbitzuarekin:

- 1) Teletarifación mediante impulsos de 12kHz.
- 2) Telealarmas zerbitzua.
- 3) Seguro de Consumo zerbitzua.
- 4) Alarma de Consumo.
- 5) Hilo Musical con técnica analógica zerbitzua. Badago ADSL zerbitzuaren gainean eraikitzen den Solución ADSL Hilo Musical izeneko produktu bat, eta horrelakoetan erantzun egiten die bezeroen beharrei.



- 6) Líneas de Respaldo, de circuitos de datos.
- 7) Líneas de Enlace de Centralitas (iragazte zentralizatuko abiaburuko lineetan izan ezik).
- 8) Líneas de Enlace de grupos Centrex (abiaburuko lineetan izan ezik).
- 9) Líneas Ibercom (larrialdiko lineak barnean hartuta).
- 10) Teléfonos de uso Público (autotarifikatuak kenduta).
- 11) Halaber, ADSL zerbitzurako sarbideak kobrezko parekoa behar duenez, ezingo da TRAC (Telefonía Rural de Acceso Celular - Sarbide Zelularreko Landa Telefonía) sarbidearen edo irrati bidezko beste batzuen gainean eman.

Bestalde, 2. bateraezintasun arrazoiaren inguruan (Telealarma Zerbitzua), MOVISTAR-ek ohartarazten du, Telealarmarako behar den instalazioa dela eta, gerta daitekeela Telealarmak egoki ez funtzionatzea, baldin eta iragazte banatua eskura badago. Kasu horietan, MOVISTAR-ek iragazte zentralizatuko instalazioa gomendatzen du.

Zerbitzu hauek bateraezinak dira Fibra teknologiaren gaineko zerbitzuekin:

- 1) RDSI
- 2) NETLAN
- 3) LAN WIFI
- 4) ACCESO PLUS
- 5) Videosupervisión
- 6) CentrexIP eta Oficina conectada
- 7) Hogar supervisado
- 8) Pack Teletrabajo
- 9) Pack Comercio
- 10) Teletrabajo Net-LAN

Bateraezinak izanez gero, MOVISTAR-ek ezingo du zerbitzua eskaini.

Edonola ere, zerbitzua eskura daitekeen ala ez kasu bakoitzean baieztatuko du MOVISTAR-ek.



Bezeroaren ekipo informatikoko hardwareko edo softwareko ELEMENTU BATZUEK zerbitzuaren ohiko jarduera oztopa dezakete eta, areago dena, zerbitzua eskuratzea eragotzi ere bai.

4.2.- Línea ADSL zerbitzuko modalitateak

MOVISTAR-ek ADSL zerbitzuko modalitate hauek eskaintzen ditu, abiaduraren arabera, Baldintza Orokor hauei jarraiki:

	Abiaduraren noranzkoa sarea-erabiltzailea	Abiaduraren noranzkoa erabiltzailea - sarea	bermatutako emaria
ADSL Máxima Velocidad (gehienez 20 Mb)	Gehienez 20.000 Kbit/s (*)	Gehienez 800 Kbit/s	-----
Class	2.000 Kbit/s	320 Kbit/s	%10
Aurreratua	4.000 Kbit/s	512 Kbit/s	%10
Premium	7.296 Kbit/s	640 Kbit/s	%10
DSL Simétrico 1M	1.000 Kbit/s	1.000 Kbit/s	%50
DSL Simétrico 1'5M	1.500 Kbit/s	1.500 Kbit/s	%50
Empresas Class	2.000 Kbit/s	640 Kbit/s	%50
Empresas Avanzada	4.000 Kbit/s	640 Kbit/s	%50
Empresas Premium	7.296 Kbit/s	640 Kbit/s	%50

* Zerbitzua Movistar+rekin batera egiten denean, sarea-erabiltzailea noranzkoan abiadura 11,5 Mb artekoa izango da.

4.2.1. Erabili ahal izango duzun abiadura eraginkorra eta operadoreak kontrolpean daukana mugatu dezaketen funtsezko eragileak honako hauek dira:

- Gerta liteke zure begizta gaituta ez egotea: telefono-linea batzuk ez daude gaituta ADSL zerbitzu batzuetarako, haien luzera, kalibrea edo beste



parametro tekniko batzuk direla eta. Kasu bakoitzean, MOVISTAR-ek zehaztuko du telefono-linea egokia den ala ez.

- Abonatuaren begizatik zentralera dagoen distantziak edota kanpoko edo inguruko kableen arteko interferentzia elektromagnetikoeak seinalea moteldu dezakete, eta abiadura gutxitzea eragin. Faktore hori ez da aplikatzen Fibra Óptica-ren gaineko sarbidean.
- Abonatu-begiztako arazoak edo hondatzea.
- Sarea mantentzeko lanak direla eta, zerbitzua etetea edo murriztea, lan horiek egiteko ezinbestean behar den denboran.

4.2.2. Operadoreari ez dagozkion funtsezko faktore mugatzaileak hauek dira:

- Sartzeko abiadura hainbat faktore teknikoren arabera izango da: Interneten une bakoitzean dagoen trafikoa, aldi berean nabigatzen dabilen internauta kopurua, IP protokoloaren efizientzia, zerbitzari, portu eta abarren okupazioa, eta beste.
- Bezeroak bere konexioan haririk gabeko routerra erabiltzen badu, kontuan hartu behar dira horren eta LAN wifi sarearen berezko mugak. Estaldura aldatu ohi da barne-espazioetan (etxe, etxebizitzetan, etab.), eraikina eraikitzeko jarraitutako moduaren arabera. Kanpoko espazioetan dagoenean, hor seinaleak aurkitu ditzakeen interferentzien (bestelako haririk gabeko sareen) eta seinalearen igorlearen eta hartzailearen artean dauden eraikinen edo oztopoen (hormen, kofratuen...) arabera izango da. [Barneen estaldurako orientazio-balioak 50 eta 70 m bitartekoak dira, eta kanpoetakoak 400 m-ra artekoak].
- Bezeroak sare elektrikoa baliatuz routerra eta ordenagailua konektatzeko PLC Ethernet egokigailuak erabiltzen baditu, horien estaldura hainbat faktoreren arabera izango da: erabilitako egokigailu modelo, egokigailuen artean sarean dagoen distantzia, zarata elektrikoa edo sare elektrikoan konektatutako beste gailuek sartutako interferentziak, egokigailua konektatuta dagoen hargunearen oinarriari aldi berean konektatutako ekipoen edo gailuen kopurua, eta abar.
- Bezeroaren ekipo informatikoko hardwareko edo softwareko elementu batzuek zerbitzuaren ohiko jardura oztopa dezakete eta, areago dena, zerbitzua eskuratzea eragotzi ere bai. Adibidez:
 - Peer to peer programak exekutatu. PCan egoiliarren diren fitxategiak (P2P) trukatzeko softwareak sorta ugari sortarazten ditu, nabigazioa motelduz eta azkenean dabilen trafikoa saturatzera iritsiz. [Esaterako, hauen moduko programak: eMule eta Kazaa, bittorrent, etab.]



- Bezeroaren PCko birus egoiliar batzuek sorta kopuru handia sor dezakete beste ekipo batzuk kutsatzeko helburuarekin, nabigazioa motelduz eta azkenean dabilen trafikoa saturatzera iritsiz.
- Software gaiztoa LANen exekutitzen.
- PCko software egoiliarraren eguneratze automatikoak. Programa jakin batzuek (sistema eragilekoak, antibirusak, nabigatzaileak...) bezeroak automatikoki konfiguratu ditzakeen eguneratzeak (eskuarki aukera hori lehenesten da) eskaini ohi dituzte online; horrenbestez, bezeroa Internetera konektatzen denean, programa horiek eguneraketak bilatzen eta deskargatzen dituzte bigarren planoan, eta horiek datuen trafikoa handitzen dute, eta nabigazioa moteldu.
- Bezeroaren kable-sarea edo ekipamendua ez dago baldintza egokienetan edo ez ditu betetzen MOVISTAR-ek zerbitzua emateko berari eskatutako baldintza teknikoak eta ezaugarriak.

4.3.- Fibra ZERBITZUKO modalitateak

MOVISTAR-ek ADSL modalitate hauek eskaintzen ditu, abiaduraren arabera, Baldintza Orokor hauei jarraiki:

	Abiadura Sarea - Erabiltzailea noranzkoan	Abiadura Erabiltzailea - Sarea noranzkoan
Zuntz Simetrikoa 1 Gb arte	1.000.000 Kbit/s arte	1.000.000 Kbit/s arte
Zuntz Simetrikoa 600 Mb	600.000 Kbit/s	600.000 Kbit/s
Zuntz Simetrikoa 300 Mb	300.000 Kbit/s	300.000 Kbit/s
Zuntz Simetrikoa 100 Mb	100.000 Kbit/s	100.000 Kbit/s
10Mb/800Kb	10.000 kbit/s	800 Kbit/s

4.3.1. Erabili ahal izango duzun abiadura eraginkorra eta operadoreak kontrolpean daukana mugatu dezaketen funtsezko eragileak honako hauek dira:

- Sarea mantentzeko lanak direla eta, zerbitzua etetea edo murriztea, lan horiek egiteko ezinbestez behar den denboran.

4.3.2. Operadorearekin zerikusirik ez duten faktore mugatzaileak 4.2.2. klausulan aipatu ditugu.



4.4.- ADSL eta Fibra zerbitzuetako modalitateen abiadura

Producto	Velocidad nominal	Velocidad bajada (kbps)			Velocidad subida (kbps)		
		Máxima	Media	Mínima	Máxima	Media	Mínima
ADSL 1 Mb Simétrico	1 Mb / 1 Mb	1000	949,66	658,18	1.000	903,26	661,95
ADSL 1,5 Mb Simétrico	1,5 Mb / 1,5 Mb	1.500	1.424,33	958,16	1.500	1.382,16	968,67
ADSL Class	2 Mb / 320 Kb	2.000	1.898,18	1.263,08	320	300,32	202,14
ADSL Avanzada	4 Mb / 512 Kb	4.000	3.798,59	2.543,60	512	480,19	328,50
ADSL Premium + 320 Kb	8 Mb / 320 Kb	7.296	6.930,71	4.670,33	320	301,48	209,14
ADSL Premium + 640 Kb	8 Mb / 640 Kb	7.296	6.926,42	4.783,71	640	596,31	417,83
ADSL Premium + 800 Kb	8 Mb / 800 Kb	7.296	6.925,86	4.771,71	800	724,94	524,98
ADSL Máxima Velocidad	Hasta 20 Mb / Hasta 800 Kb	20.000	14.716,22	13.202,56	800	724,46	519,11
ADSL Máxima Velocidad con IPTV	Hasta 11,5 Mb / Hasta 800 Kb	11.500	8.460,72	7.365,67	800	749,48	523,77
ADSL 20 Mb	20 Mb / 800 Kb	20.000	14.725,79	12.892,60	800	737,88	525,10
FTTH 10 Mb	10 Mb / 800 Kb	10.000	9.993,10	9.347,90	800	761,17	739,05
FTTH 100 Mb	100 Mb / 10 Mb	100.000	99.958,00	93.687,00	10.000	9.908,20	9.487,90
FTTH 100 Mb Simétrico	100 Mb / 100 Mb	100.000	99.980,00	92.404,00	100.000	98.235,00	90.961,00
FTTH 300 Mb	300 Mb / 30 Mb	300.000	299.778,00	278.214,00	30.000	28.993,80	27.864,30
FTTH 300 Mb Simétrico	300 Mb / 300 Mb	300.000	299.829,00	283.929,00	300.000	292.185,00	284.847,00
FTTH 600 Mb	600 Mb / 60 Mb	600.000	599.400,00	563.982,00	60.000	59.574,60	55.273,80
FTTH 600 Mb Simétrico	600 Mb / 600 Mb	600.000	599.562,00	553.476,00	600.000	573.168,00	562.830,00
FTTH hasta 1 Gb Simétrico	1000Mb / 1000Mb	1.000.000	916.374,02	739.597,53	1.000.000	916.374,02	739.597,53

(*) IPTV teknologiarekin telebista zerbitzua aldi berean erabilia, nabigazio-abiadura jaitsei egiten da, telebista kanal baten banda-zabalerari dagokion neurri berean (2.400 Kbp).

Emandako abiadura-zifrak kalkulatzeko, internet finkora sartzeko zerbitzu garrantzitsuen sinkronizazio-abiadura betetzeko ehunekoak hartzen dira kontuan, Telekomunikazio eta Azpiegitura Digitalen Estatu Idazkaritzak (SETID) edo IET1090/2014 Agindua garatuz haren ordeko erakundeak definitutako irizpide gehigarrien dokumentuaren arabera.

- “Gehieneko abiadura” kalkulatzeko faktorea parekagarrien den zerbitzu garrantzitsurako zunda-sistemako konexio azkarrenen 95 pertzentila sinkronizatzeko abiadura betetzeko mailaren arabera erabakitzen da.



- “Lortu ohi den abiadura” kalkulatzeko faktorea guztietan parekagarriena den zerbitzu garrantzitsurako zunda-sistemako konexioen batez besteari dagokion sinkronizatzeko abiadura betetzeko mailaren arabera erabakitzen da.
- “Gutxieneko abiadura” kalkulatzeko faktorea profil eta teknologia bakoitzaren ezaugarrien arabera zehazten da.

Zerbitzu adierazgarri horiek transmititzeko abiadura zunda-sistema baten bitartez neurtzen da, eta horien kopurua nahiz kokapena Operadore bakoitzak ezinbestean eutsi eta argitaratu beharreko zerbitzu bakoitzeko bezero errealen araberakoa da.

ADSL teknologien bidez lor daitezkeen datuen transmisio-abiadurak mugatu egin daitezke abonatuaren eta honen mendeko tokiko zentralaren arteko begiztaren luzeraren arabera. Adierazitako abiadura abonatu-begiztaren batez besteko distantzia baterako lortu da, Telekomunikazio eta Azpiegitura Digitalen Estatu Idazkaritzak (SETID) edo haren ordezkariak interneten sartzeko parametro espezifikoekin berri emateko eskatutako irizpideei jarraituz.

Azken BEZEROAK atzematen duen abiadura 4.2.1, 4.2.2, 4.3.1 eta 4.3.2 klausuletan adierazitako faktore mugatzaileek baldintzatzen dute.

4.5.- Iragazkiaren instalazioa.

Deskribatutako abiadura modalitateetarako, MOVISTAR-ek zentralizatutako iragazkia instalatuko du (splitter-a) edo iragazki banatua (mikroiragazkien bitartez), BEZEROAREN etxe barruko telefono sarearen berriazko eskuragarritasuna eta ezaugarrien arabera

Iragazia jartzeko edo instalatzeko, Baldintza hauek bete beharko dira:

- Bestelakorik adierazi ezean, iragazte banatua ezarriko da, kontratatutako abiadura dena delakoa izanda ere. Modalitate horren azpian, MOVISTAR-ek BEZEROAREN barne instalazioaren arabera behar diren mikroiragazkiak jarriko ditu; hiru gehienez.
- Iragazte banatua duen zerbitzuarekin hornitzaile ez badago, betiere BEZEROAK bere onarpena emanaz gero, splitter-a instalatuko da sarera konektatzeko puntuaren ondoan.
- Splitter-a instalatzea beharrezkoa izanez gero, instalazio horren barruan sartuko da splitter-etik BEZEROAREN modem/routerrera bitarteko tarterako behar den kable-sarea (hemendik aurrera, kable-sarea).



- MOVISTAR-ek Instalatzeko Zerbitzua eman ahal izango du bere kabuz edo baimendutako instalatzaile baten bitartez.

Splitter-a MOVISTAR-ena da.

4.6.- Konektibitateko ekipamendua zerbitzuarekin batera kontratatzeke aukerak.

Zerbitzua egoki emateko, beharrezkoa da BEZEROAK emandako sarbide-teknologiarako ekipamendu egokia izatea, 4.1.2 klausulan zehaztutako moduan.

4.6.1.- Konektibitateko ekipamenduaren instalazioarekin

BEZEROAK zerbitzuaren prestazioa kontratatu ahal izango du, Movistar-ek abiadura handiko Internet sarbidea egiteko -edozein sarbide-motatan- behar den konektibitateko ekipamendua alokairuarekin edo alokairurik gabe.

Alokairu-erregimenean kontratatzeke eta funtzionatzeko baldintzak alokairu hori arautzen duten baldintzen arabera zuzenduko dira, eta hemen daude argitaratuta: www.movistar.es eta 4.7. klausulan.

4.6.1.1.- Konektibitateko ekipamenduaren instalazioarekin eta alokairuarekin

MOVISTAR bezeroaren etxebizitzara joango da, zerbitzua ekipamenduaren instalazioarekin eta alokairuarekin eskatzen duenean. Zerbitzuan alta eginez gero konektibitateko ekipamenduaren instalazioarekin eta alokairuarekin, bezeroak "Prezioak" izeneko 1. Eranskinean zehaztutako instalazioko kuota ordaindu beharko du. Alokairu-zerbitzua egiteko, Interneteko zerbitzuak egiteko baliabide teknikoak beharko dira.

ADSL zerbitzua MOVISTAR-en instalazioarekin kontratatuz gero, instalazioa baldintza hauen arabera egingo da:

- Modem/routerra sarearen aldetik konektatuko da splitter-era, baldin eta instalazioa iragazte zentralizatuarekin bada, Sarea Amaitzeko Puntura (PTR), hornikuntza mikroiragazkiekin egin baldin bada.
- BEZEROAREN aldean, modem/routerra bere ekipo informatikora konektatuko da.
- Línea ADSL zerbitzuaren barruan modem/routerra instalatzea sartzen da, baina baldintza hauetan bakarrik: PC erako ekipamendu bateragarrietan, 4.1. klausulan adierazitakoaren arabera, CD irakurgailuarekin eta erabilera egoera



egokiko sistema eragilearekin; ezinbesteko baldintza izango da jatorrizko CDak instalatzailearen esku izatea.

- Sistema eragile jakin batzuetarako (MAC, SUN, etab.), MOVISTAR-en erantzukizuna modem/routerra konfiguratzearekin bukatzen da, eta erabiltzailearen erantzukizuna da ekintza egokiak gauzatzea. Kasu horretan, MOVISTAR-ek bere ekipo eramangarriekin gauzatuko ditu azken frogak, instalazioa egokia dela egiaztatzeko bakarrik.
- Nabigazioa egiaztatzen denean, modem/routerraren instalazioa bukatutzat emango da.
- Instalatzeko prozesutik kanpo dago posta elektronikoko programak eta BEZEROAK erabil ditzakeen beste edozein programa konfiguratzeko.

Fibra zerbitzua kontratatuz gero, zerbitzuaren barruan sartzen da routerra alokatzea eta instalatzea, bezeroaren ekipo informatikoarekin konektatzeko, bai eta hargune optikoa, ONTa, eta hargune optikoaren eta ONTaren arteko kable-sarea. Alokairuan modem/routerra eta ONTaren kontratatzeke eta funtzionatzeko baldintzak alokairu hori arautzen duten baldintzen arabera zuzenduko dira, eta hemen argitaratuta daude: www.movistar.es eta 4.7. klausulan.

Routerra ondoko baldintzen arabera instalatuko da:

- Routerra sarearen aldetik konektatuko da ONTra.
- ONTa zuntz optikoko kable-sarearen bitartez konektatuko da hargune optikora.
- Bezeroaren aldean, routerra bere ekipo informatikora konektatuko da.
- 461 klausulako ADSL zerbitzua kontratatzeke aurreko idatz-zatian xedatutako gainerakoak.

4.6.1.2.- Modem/routerraren instalazioarekin eta alokairurik gabe

Bestalde, BEZEROAK alokairurik gabeko modema/routerra zerbitzuaren prestazioa kontratatu ahal izango du. Hau da, bere modem/routerra instalatzeko eskatu ahal izango dio MOVISTAR-i. Baldintza hauek bete beharko dira instalatzeko: MOVISTAR-entzako modelo bateragarria izatea eta helbide honetan finkatutako eskakizunak betetzea: <http://www.movistar.es/interfaces/>. Horri dagokionean, bezeroak "Prezioak" izeneko 1. eranskinean zehaztutako instalazio-kuota ordaindu beharko du.

4.6.2.- Zerbitzua kontratatzea konektibitateko ekipamenduaren instalaziorik gabe



BEZEROAK zerbitzuaren prestazioa kontratatu ahal izango du, Movistar-ek abiadura handiko Internet sarbidea egiteko -edozein sarbide-motatan- behar den konektibitateko ekipamendua alokairuarekin edo alokairurik gabe. Alokairu-zerbitzua egiteko, Interneteko zerbitzuak egiteko baliabide teknikoak beharko dira.

Alokairu-erregimenean kontratatzeke eta funtzionatzeko baldintzak alokairu hori arautzen duten baldintzen arabera zuzenduko dira, eta hemen daude argitaratuta: www.movistar.es eta 4.7. klausulan.

4.6.2.1.- Konektibitateko ekipamenduaren instalaziorik gabe eta alokairuarekin ((kit autoinstalable))

Bestetiko, MOVISTAR-ek aukera ematen dio BEZEROARI zerbitzua instalaziorik gabe eta konektibitateko ekipamenduaren alokairuarekin (ekipamendu autoinstalagarria) kontratatzeke. Zerbitzu horren ezaugarrietako bat da BEZEROAK berak instalatzen duela zerbitzua etxean, MOVISTAR-i muntatzekoei jarraiki.

ADSL zerbitzuari dagokionez, prestazio hauek bateratzen dituen konektibitateko zerbitzua da:

- Abiadura handiko Interneterako sarbidea.
- Bezeroarentzako arreta Kit ADSL Autoinstalable zerbitzuaren inguruan.
- Kit ADSL Autoinstalable zerbitzuaren aukera gehigarri batzuk.

Zerbitzuak atal hauek ditu: Modem/router ADSL, iragazte banatuko elementuak (mikroiragazkiak), aurreko elementuak konektatzeko kableak, konfiguratzeko softwarea eta laguntza, eta erabiltzailearen eskuliburua.

Muntatze-kita dendan hartu ahal izango da bezeroak ezer ordaindu gabe, edo BEZEROAREN bizitokira bidali ahal izango da Zerbitzua eskatu ondoren eta Internet Zerbitzuetarako Modem/Router Alokatzeko-Zerbitzua kontratatu ondoren.

Modem/routerra bezeroaren etxera bidaltzeko gastuak BEZEROAK ordainduko ditu, hain zuzen, kopuru hau unitate bakoitzeko:

Kontzeptua	BEZ (%21) Penintsula eta Balearrak	IPSI (%10) Ceuta	IPSI (%8) Melilla	IGIC (%6,5) Kanariak
Bidalketako gastuak	7,30 €	6,63 €	6,27 €	6,43 €



Ondorio guztietarako zerbitzuko alta eraginkorreko egun bezala hartzen da BEZEROAK, aldez aurretik MOVISTAR-i alokatuta, zerbitzuari dagokion tresneria jasotzen duen eguna; izan ere, egun horretarako MOVISTAR-ek zerbitzua hornitzeko egin beharreko zereginak eginda izango ditu, eta BEZEROAK, kit-a instalatu ondoren, nabigatu ahal izango du.

MOVISTAR-ek muntatzeko kitaren instalazioari buruzko telefonoko euskarri teknikoak eskainiko dio BEZEROARI, horretarako bideratutako laguntze teknikoko zenbakietan, bai eta instalazioa eskatzeko aukera ere. Bezeroak erabakitzen badu ekipamendu autoinstalagarria hartzea, baina azkenean laguntza teknikoak behar badu instalatzeko, "Prezioak" izeneko 1. Eranskinean zehaztutako instalazio-kuota ordaindu beharko du.

4.6.2.2.- Modem/routerraren instalaziorik gabe eta alokairuarekin

Zerbitzuren hornikuntza modem/routerrik alokatu eta instalatu gabe Línea ADSL con filtrado distribuido modalitatea eskatzen bada, ez da BEZEROAREN etxebizitzara joan-etorririk egingo, eta BEZEROAK berak eskuratu beharko ditu modem/routerra eta zerbitzua egiteko behar diren mikroiragazkiak.

Kasu horretan, BEZEROAK MOVISTAR-en establezimenduetan edo beste establezimendu batzuetan eskuratu ahal izango ditu mikroiragazkiak.

Nolanahi ere, BEZEROAK bere kontura eskuratutako modem/routerra eta mikroiragazkiek zehaztaperen tekniko batzuek bete beharko dituzte; hementxe argitaratutako hauek, hain zuzen: <http://www.movistar.es/interfaces/>

BEZEROAK eskuratutako modem/routerrak edo mikroiragazkiek eskatutako baldintzak betetzen ez badituzte edo BEZEROAK hiru mikroiragazki baino gehiago instalatu baditu, MOVISTAR-ek ez du zerbitzua egoki egiteko ardurarik bere gain hartuko.

Iragazki zentralizatua duen instalazioa behar izanez gero, MOVISTAR BEZEROAREN etxera joango da splitter-a instalatzera, nahiz eta BEZEROAK modem/routerrik alokatu eta instalatu gabeko zerbitzua eskatu.

4.7.- Internet zerbitzuetarako konektibitateko ekipamendua alokatzeko zerbitzua egiteko baldintzak

MOVISTAR-ek konektibitateko ekipamendua alokatzeko zerbitzua egino dio BEZEROARI. MOVISTAR-ek dagokion ekipamendua eta alokairuaren xede diren eta 4.1.2 klausulak aipatzen dituenak jarriko ditu bezeroaren eskua, eskaera jaso eta hurrengo bost egutegi-egunetan.



Alokairu-erregimenean kontratatzeke eta funtzionatzeko baldintzak alokairu hori arautzen duten baldintzen arabera zuzenduko dira, eta hemen daude argitaratuta: www.movistar.es

4.7.1 Alokaturako konektibitateko ekipamenduari dagokionez bezeroak dituen betebeharrak.

Bezeroak ondoko betebeharrak hartzen ditu bere gain:

a) MOVISTAR-en jabetzako konektibitateko ekipamendua entregatzen zaion unetik, alokatutako ekipamendua egoki erabiltzeko eta maneiatzeko erantzukizuna. Era berean, alokatutako terminalak hondatu edo galtzeko arduraduna izango da, betiere egiaztatzen ez bada gertaeretan inolako errurik ez duela.

b) MOVISTAR-i alokatuta dauzkan terminalen inguruan gertatzen den edozein kalteko berri, edozein erreklamazio, ekintza, salaketa edo bahimendu berehala jakinaraztea.

Halaber, edozein bahimendu edo ekintza, salaketa edo erreklamazio eragin nahi dieten hirugarren pertsonen aurrean, adierazi beharko du MOVISTAR dela terminalen titularra, eta hari dagokiola terminalen jabetza edo jabegoa.

c) Honako kontratu hau bukatutakoan, baldin eta 15.1 klausulan jasotako edozein arrazoi tartean bada, BEZEROAK konektibitateko ekipamendua itzuli beharko du kontratua ebatzi ondorengo hamabost egutegi-egunen barruan, 1004ra edo erantzun profesionaleko 1489 zenbakira deituta adieraziko zaion prozedura betez.

BEZEROAK ez bada konektibitateko ekipamendua adierazitako epean itzultzen edo gailuak erabiltze hutsak eragindakoak baino matxura edo kalte handiagoren bat izango balu, osagairen bat faltako balitzaio edo MOVISTAR-ek emandako modeloarekin osoki bat ez datorrena balitz, zigor gisa, konektibitateko ekipamendu horri dagokion kopurua fakturatuko zaio BEZEROARI, haren antzinasuna aintzat hartuta.

4.7.2 Konektibitateko ekipamendua erabiltzean baimenduta dauden jarduerak

Erabiltzaileak ekipamenduaren parametroak aldatu ahal izango ditu, hala nola portuak zabaltzea, MOVISTAR-ek emandako baliabideak erabiliz (web orria, Alejandra, ataria, CAT, kudeaketako softwarea).

Debekatuta dago:

- Konektibitateko ekipamendua fisikoki irekitzea.
- Aldatzea edo barruan osagai fisikoak sartzea.



- Parametroak aldatzea, eta, ondorioz, konektibitateko ekipamenduaren homologazioko ezaugarriak aldatzea.

- Parametroak aldatzea, legez kanpokoak diren, Baldintza Orokor hauetan debekatuta dauden, edo hirugarrenen eskubideak eta interesak kaltetu ditzaketen xede edo ondorioekin, eta, era berean, MOVISTAR-ek edo Grupo Telefónica-ko edozein enpresak egindako beste zerbitzuren bat nola edo hala kaltetu, erabilezin utzi, gainkargatu edo hondatu ahal duten xede edo ondorioekin.

4.7.3 Zerbitzua eskuratzeko aukera kentzea edo etetea

MOVISTAR-ek ahalmena izango du zerbitzuaren prestazioa kentzeko edo kautelazko neurri gisa eteteko klausula honetan finkatuta dagoena betetzen ez duten BEZEROEI, behar den moduan jakinarazita, aldezturik gabe.

4.7.4 BEZEROARI laguntza teknikoa emateko zerbitzua

Aholkularitza eta Diagnostikoa zerbitzuak, eta Gorabeherak Konpontzeko Zerbitzua. Harremanetan jartzeko, telefonoz deitu beharko da: partikularrek 1004 zenbakira, eta profesionalek, negozioek eta enpresa txiki eta ertainek 1489 zenbakira.

4.7.5. Movistar-en konektibitateko ekipamendua konfiguratzeko

Movistar-ek konektibitateko ekipamendua emango dio BEZEROARI, aurrez zehaztutako konfigurazioarekin, zerbitzua kontratatutako eran egin ahal izateko. Hala ere, BEZEROAK konfigurazio horren parametro batzuk aldatu ahal izango ditu, Alejandra atariaren bidez, lotura honetan: <https://www.movistar.es/ConfigRouters/Alejandra/Acceso/>.

Nolanahi ere, Movistar-ek beretzat gordetzen du BEZEROAK definitutako konfigurazioa edozein unetan eta aurrez ohartarazi gabe berriz konfiguratzeko, berrabiatzeko, edo ordezkatzeko eskubidea, betiere kontratu honen xede diren zerbitzuen prestazioa hobetzeko bada, edo parametroak aldatzea saihestu nahi bada, hain zuzen, legez kanpokoak diren, Baldintza Orokor hauetan debekatuta dauden, edo hirugarrenen eskubideak eta interesak kaltetu ditzaketen parametro-aldaketak eta, era berean, MOVISTAR-ek edo Grupo Telefónica-ko edozein enpresak egindako beste zerbitzuren bat nola edo hala kaltetu, erabilezin utzi, gainkargatu edo hondatu ahal duten parametro-aldaketak.

4.8. - BEZEROARENTZAKO Arreta Zerbitzua.

Bezerearentzako Arreta Zerbitzuaren baitan Arreta Komertzialeko Zerbitzua eta Laguntza Teknikoko Zerbitzua sartzen dira. Azken hori MOVISTAR-ek edo baimendutako Laguntza Teknikoko Zerbitzu batek eman ahal izango du.



4.8.1. Bezeroarentzako Arreta Komertzialeko Zerbitzua telefonoko laguntza komertziala da, horretarako MOVISTAR-ek jarritako zenbakien bitartez.

4.8.2. Bezeroarentzako Laguntza Teknikoko Zerbitzuak kontsulta telefonikoko zerbitzua eskaintzen du, eta Diagnostiko Zerbitzua eta Gertaerak Artatzeko Zerbitzua hartzen ditu barnean.

BEZEROAK zerbitzua kontratatzen badu konektibitateko ekipoaren alokairuarekin eta instalaziorik gabe, ez da barruan sartuko BEZEROAREN ekipo informatikoan eta modem/routerrean izandako gorabeheren laguntza teknikoa. MOVISTAR-eko alokairuetan, modemeko/routerreko laguntza teknikoa www.movistar.es web orrian argitaratutako eta 4.7. klausulan ezarritako erabilerako baldintzen arabera izango da.

4.8.2.1.- Diagnostiko Zerbitzua MOVISTAR-ek horretarako bereziki antolatutako telefono-zenbakiaren bidez BEZEROARI ematen dion laguntza teknikoko zerbitzua da. Horretarako, MOVISTAR-ek ZERBITZUAREN jarduerari eragiten dion edozein gertaeraren berri jasoko du, eguneko 24 orduetan, asteko 7 egunetan, jaiegunak barnean hartuta. BEZEROAK ZERBITZUARI buruzko gorabeheraren batekin bidalitako oharra jaso ondoren, MOVISTAR-ek gorabehera horretarako izan daitekeen arrazoia adieraziko du.

4.8.2.2. - Gertaerak Artatzeko Zerbitzuak telefono bidezko laguntza teknikoa ematen du, BEZEROAK ZERBITZUARI dagokion ekipamendua instalatuta daukan etxebizitzan bertan.

MOVISTAR-ek bere gain hartzen du BEZEROARI ZERBITZUA erabiltzerakoan gerta dakizkiokeen gorabeherak artatzeko betebeharra, eta arazoak konpontzeko prozedura jarriko du abian, bezeroak Laguntza Teknikoko Zerbitzuari gertaeraren berri eman bezain laster.

MOVISTAR-ek doan egingo dio BEZEROARI diagnostikatutako gorabehera artatzeko zerbitzua, betiere diagnostikatutako gorabeheraren jatorrian MOVISTAR-en ardurapekoak izan daitezkeen akatsak badaude. Horrek ez dio kalterik eragingo diagnostikatutako gertaerak artatzeko telefono-deiaren kostuari.

Gainerako kasuetan, BEZEROAK eskatuta baizik ez du egingo MOVISTAR-ek Laguntza Teknikoko Zerbitzua, MOVISTAR-ek finkatuta daukan prezioa ordainduta; prezio-zerrenda URL honetan dago argitaratuta: <http://www.movistar.es>.

4.9. - Aukera gehigarriak.



BEZEROAK web orri honetan argitaratuta dauden zerbitzuko aukera gehigarriak izango ditu eskura: <http://www.movistar.es>. MOVISTAR-ek aukera gehigarriak eskaini ahal izango ditu bere kabuz edo hirugarren baten bitartez.

4.10- Zerbitzuaren aldaketak.

Bezeroak konpromisoa hartzen du kontratuko datuetan gertatzen diren aldaketen berri emateko Movistar-i, batez ere fakturazio-helbideari eta ordainketak helbideratzeko banku-kontuari dagozkionak.

Movistar-ek, Alderdien arteko prestazioen oreka berrezartzeko helburu bakarrarekin, kontratuan zehaztutako baldintzak aldatu ahal izango ditu, eta, bereziki, horren prezioa. Horretarako, arrazoi hauetako bat izango du, Movistar-ek Zerbitzuaren tarifak finkatu eta geroagoko egoera baten ondorio direnean:

- Movistar sartuta dagoen enpresa-sektoreko kostuak handitzea, estaldura, sarearen kalitatea edo emandako Zerbitzuaren ezaugarriak hobetzeko.
- Zerbitzua emateko baldintzei eragiten dieten arau-aldaketak (zergak, tasak edo ebazpen administratibo edo judizialak barne).
- Kontsumorako prezioen indizearen (KPI) edo, horrelakorik ezean, prezio industrialen indizearen (IPRI) gehikuntza.

Movistar-ek edozein aldaketaren berri eman behar dio bezeroari dagokion arrazoi xedatuarekin, gutxienez, aldaketa gauzatu baino hilabete BAT (1) lehenago. Bezeroak eskubidea du kontratua penalizaziorik gabe eteteko, bezeroak berak hartutako beste konpromiso batzuei kalterik egin gabe. Hilabete bateko epean Movistar-ek jakinarazpenik jaso ez badu, Bezeroak aldaketak onartzen dituela ulertuko da.

4.11.- Matxurak konpontzea eta Zerbitzua mantentzea.

MOVISTAR-ek nahitaez konpondu beharko ditu abonatuaren etxean Sarea Amaitzeko Puntura arteko instalazioetan gerta litezkeen matxurak. BEZEROAK matxuren berri jakinaraziko dio MOVISTAR-ek horretarako antolatuta daukan kanalaren bitartez: 18. klausulan finkatutako matxurak artatzeko zenbakia da kanal hori. Matxuraren berri emateko unean bertan emango da bertako erreferentziako zenbakia, BEZEROAK eskatutakoan.



Era berean, BEZEROAK matxuren berri eman ahal izango du web orri honen bidez: <http://www.movistar.es>

Matxurak konpontzeak eratorritako kostuak MOVISTAR-ek ordainduko ditu, betiere erabiltzean edo zaintzean BEZEROAREN utzikierarik izan ez bada, edo sarearekin edota tresnekin jarduera engainagarririk edo erruzkorik izan ez bada.

ADSL sarbidea eta emandako amaiera mantentzea zerbitzu honetan sartuta dago.

Ez dira mantentze-lanaren barruan BEZEROAK Sarea Amaitzeko Puntuan (PTR) konektatzen dituen ekipamenduak (txartelak, modem/routerra, ekipo informatikoak, etab.), eta MOVISTAR-ek egindako ADSL zerbitzuari euskarria eskaintzen dion sarearen amaierako puntua ere ez.

Zuntzeko zerbitzuan, prestazioen barruan sartuko da MOVISTAR-en jabetzako ekipamendua mantentzeko lana: ONTa, hargune optikoa, hargune optikoaren eta ONTaren arteko zuntz optikoko kable-sarea.

BEZEROAK Internet zerbitzuetarako konektibitateko ekipamenduaren alokairu zerbitzua hautatu badu, MOVISTAR-ek bezeroei alokatutako ekipoetan gerta litezkeen matxurak konpondu beharko ditu. Matxuraren berri emateko unean bertan emango da horren erreferentziako zenbakia, BEZEROAK eskatutakoan.

MOVISTAR-en irizpidearen arabera, ekipoa konpontzeko lanetan sar litezke bezeroaren etxean matxuratutako unitate funtzionala konpontzea edo ordezkatzea, edota antzeko prestazioak dituen beste batekin ordezkatzea.

Zerbitzuko gorabeherak diagnostikatzeko eta konpontzeko zerbitzua egiteko, BEZEROAK konektibitateko ekipamendura sartzeko pasa-hitza jakinarazi beharko dio MOVISTAR-en baimendutako langileei. MOVISTAR-ek gorabeherak diagnostikatzeko eta konpontzeko zerbitzua egin ondoren, bezeroak konektibitateko ekipamendura sartzeko pasa-hitza MOVISTAR-en baimendutako langileei jakinarazi badie, pasa-hitza aldatu beharko du, segurtasuna dela eta.

Matxura Jabeen Erkidegoaren Sare Komunitarioaren Azpiegituran zehar dabilzan transmisio-bideetan gertatuz gero, azpiegitura horren mantentze-lanetarako MOVISTAR-ekin kontratu berezirik ez badago, MOVISTAR-ek ez ditu bere gain hartuko konponketa egiteko finkatutako konpromisoak.

Horrez gain, BEZEROAK ekipamenduen eta osagarrien etxeko mantentze-zerbitzua kontratatu ahal izango du, aukera gehigarriaren bidez, eta une bakoitzean mantentze-zerbitzu hori arautzen duten kontratuko baldintzak betez; baldintza horiek web orrian daude ikusgai: <http://www.movistar.es>. Kontratatzeko, BEZEROAK Merkataritzako Laguntza Zerbitzura jo ahal izango du.



MOVISTAR-eko langileek BEZEROAREN etxebizitzan egindako konponketak aipatutako mantentze zerbitzuak bere gain hartzen ez baldin baditu, BEZEROAK ordain ekonomikoa jarri beharko du MOVISTAR-en alde.

Adierazitako zerbitzua ematen da, ekipamendua MOVISTAR-ek emandakoa izan ala ez, betiere baldin eta zerbitzuarekin bateragarria bada, zerbitzua kontratatzeko unean egoera onean badago, eta MOVISTAR-ek laguntza teknikoa ematen dien ekipamendu multzoaren atala bada.

5. - BEZEROAREN BETEBEHARRAK.

BEZEROAK ondoko betebeharrak hartzen ditu bere gain:

5.1. - Zerbitzuaren prezioa.

Zerbitzuaren ordainetan, BEZEROAK mota bakoitzari dagokion prezioa ordaindu beharko du, une bakoitzean indarrean dauden zenbatekoen arabera.

Egungo prezioak I. Eranskinean jasota daude.

4.7 klausulan aipatzen den konektibitateko ekipamendua alokatzeko hautua eginez gero, zerbitzuaren ordainean, BEZEROAK ekipamendu-modalitate bakoitzari dagokion prezioa ordaindu beharko du, une bakoitzean haren baldintzetan indarrean dauden prezioen arabera.

5.1.2. - Prezioak aldatzea.

Earz daitezkeen prezioetan aldaketaren bat egiteko, MOVISTAR-ek BEZEROARI jakinarazi beharko dio, 16. klausulan ezarritako edozein bide erabiliz, gutxienez hil bat (1) lehenago. Hori guztia 4.10 klausularekin bat etorrira.

BEZEROAK tarifa berriekin ados ez dagoela adieraziz gero, Baldintza Orokor hauetan araututako zerbitzuaren prestazioa alde bakarretik eten ahal izango da, BEZEROARI inolako zigorrik edo gastu gehigarrikerik ezarri gabe.

5.1.3. Fakturazioa eta ordainketa.

Prezioen I. koadroan adierazitako baturak fakturatuko dizkio MOVISTAR-ek BEZEROARI; prezio horiek I. eranskinean daude honela adierazita:



- (i) Zerbitzuaren arabera fakturatu daitezkeen kontzeptu guztiak hilabetea amaitutakoan fakturatuko dira, hilero eta oinarrizko telefono zerbitzuaren (STB) fakturan sartuko dira.
- (ii) Zerbitzuari dagokiona ordaintzeko eskatu ahal izango da BEZEROAK duen telefonia zerbitzuaren faktura kobratzeko aurkezten denetik, eta horretarako adierazitako bankuko edo aurrezki kutxako kontuaren bidez egingo da; horrelakorik ezean, MOVISTAR-ek horretarako egokitutako tokian egingo da, eta bezeroari bidalitako ordainketa-oharrean berariaz adieraziko da toki hori. Fakturan bertan adieraziko da ordainketa noiz egin ahal izango den.
- (iii) Egindako lehenengo fakturan altako kuotari dagokion zenbatekoa sartuko da eta, hala dagokionean, zerbitzuan sartzen denaren ekipamenduaren zenbatekoa ere bai. Lehenengo kuota hori proportzionalki banatuko da, zerbitzua indarrean sartutako dataren arabera.
- (iv) Zerbitzu hau kontratatuz gero, BEZEROAK onartuko du faktura formatu elektronikoa jasotzea, kontratazioan faktura paperean jasotzeko hautua egiteko eskubidea izan arren. Hori onartuz gero, formatu elektronikoko faktura zabalduko da BEZEROAK Telefónica de España, S.A.U.rekin kontratatuta dituen edo ondoren kontratatuko dituen Movistar Fijo-ko produktu guztietara.

Aurrekoari kalterik egin gabe, BEZEROAK edozein unetan hautatu ahal izango du faktura paperean jasotzeko, arreta pertsonaleko 1004 zenbakira edo erantzun profesionaleko 1489 zenbakira deituta.

Ordaintzean atzeratuz gero, eta BEZEROARI ordaintzeko eskatu, eta eskaera egin eta zazpi (7) eguneko epean ordaintzen ez badu, MOVISTAR-ek bertan behera utzi ahal izango ditu zerbitzuak.

Epe hori igaro ondoren, MOVISTAR-ek ordaintzeko eskatuko dio berriz BEZEROARI, eta hamar (10) eguneko epea emango dio ordainketa egiteko. Epe hori igarotakoan, MOVISTAR-ek behin betiko eten ahal izango du zerbitzua, baja emanda.

MOVISTAR-ek berriz ezarriko ditu abian etendako zerbitzuak, zordundutako zenbatekoa ordaindu dela jakin eta hurrengo lanegunetik aurrera, eta 25 euro kobratuko dizkio BEZEROARI (30,25 € BEZa barne), zerbitzu guztiak berrezartzearen truke.



Halaber, ordaindu ezean, zorrari buruzko datuak kreditu-informazioko sistemak kudeatzen dituzten erakunde hauei jakinarazi ahal izango zaizkie: ASNEF, EQUIFAX IBERICA, S.L. merkataritza-enpresak kudeatzen duen sistema; BADEXCUG, Experian Bureau de Crédito, S.A. merkataritza-enpresak kudeatzen duen sistema, eta BEZEROARI behar bezala jakinarazten zaion beste edozein.

5.1.4. Gordailua

5.1.4.1 ADSL zerbitzuan alta emateko eskaria jasotakoan eta kontratu hau indarrean dagoen edozein unetan, MOVISTAR-ek kontratu honetatik eratorritako betebeharrak betetzeko xedez hau egin dezake:

- bezeroari berme bat eratzeko eskatu, eskudirutan edo bankuko abal bidezko gordailu ez ordaindu bidez;
- bezeroari kreditu muga bat esleitu.

5.1.4.2 Neurri horiek hartuko dira, kasu hauetakoren bat gertatuz gero:

- MOVISTAR-ekin formalizatutako edozein kontratutan bezeroak ordaindu gabeko kopuruak izatea.
- Dagozkion fakturak ordaintzen behin eta berriz atzeratzea.
- Indarrean dagoen legediaren arabera, kontratu honen ondorioz bezeroak dituen betebeharrak betetzeko adina kaudimen ez kreditatzea. MOVISTAR-ek bezeroaren kaudimena egiaztatu ahal izango du automatizatutako fitxategietarako sarbidearen bitartez, non izaera pertsonaleko datuak Datuen Babeserako Europako 2016/679 Araudiko 6.1 b) artikuluan zehaztutakoaren arabera lortu diren, dokumentu bereko 22. artikuluari lotuta dagoena, eta baita hori ordezkatzeko duen edo aplikatu daitekeen edozein araudi jarraiki ere. MOVISTAR-ek finkatutako kreditu-muga gainditzea.

5.1.4.3. - Eskatutako bermea eratzeko MOVISTAR-i ahala emango dio zerbitzuan alta eskaria ezesteko, irteerako deiak mugatzeko, kontratua bertan behera utzi edota baliogabetzeko eta behin betirako eteteko.

5.2. - Gorabeherak konpontzera etxera joateko zerbitzuaren prezioak.

MOVISTAR-ek laguntza teknikoko zerbitzua etxean eta doan eskainiko dio BEZEROARI, diagnostikatutako gorabehera MOVISTAR-i egotzi ahal zaizkion akatsengatik bada, eta, betiere, ADSL zerbitzuari eusten dion sarean bada, 4.7 eta 4.10 klausuletan xedatutakoaren arabera.



Artatutako gorabehera ez bada aurrekoaren ondorioa, BEZEROAK ezinbestez ordaindu beharko du MOVISTAR-ek egindako joan-etorriari eta konpontze-lanari dagokion prezioa, betiere, BEZEROAK mantentze-lanetarako zerbitzu gehigarriak kontratatuta ez badu. Esku hartzeko kostua une horretan indarrean dagoena eta ondoko web orrian eskuragarri dena izango da: www.movistar.es

Zerbitzu horren zenbatekoa eta ordaintzeko modua BEZEROARI jakinaraziko zaio zerbitzua eskatzen duenean.

5.3. - Zerbitzuak zuzen erabiltzea.

BEZEROAK hitzematen du legearen, moralaren, oro har onartutako ohitura onen eta ordena publikoaren arabera erabiliko duela zerbitzua; era berean, hitzematen du ez duela zerbitzua erabiliko, konektibitateko ekipamendua edo ekipoak, edota MOVISTAR-ek edo Grupo Telefónica-ko enpresaren batek maileguan utzitako bestelako zerbitzuak legez kontrako xedeetarako, Baldintza Orokor hauetan debekatuta dauden, edo hirugarrenen eskubideak eta interesak kaltetu ditzaketen helburuetarako, eta, era berean, beste bezero batzuen edo Interneteko erabiltzaileen zerbitzuak (hardwarea eta softwarea) edota horien ekipo informatikoak eta agiriak, artxiboak eta beren ekipo informatikoetan biltegitratutako edukiak (hacking) nola edo hala kaltetu, erabilezin utzi, gainkargatu edo hondatu ahal duten xedeetarako, edota zerbitzuak, ekipo informatikoak eta agiriak, artxiboak eta edukiak beste bezeroek eta Interneteko erabiltzaileek normal erabil ditzaten oztopatzeko.

Praktika horien kalteak jasan dituzten bezeroek MOVISTAR-i jakinarazteko aukera izango dute abuse@movistar.es helbide honetara idatzita edo beste helbide honetako inprimakia beteta: <http://www.movistar.es/nemesys>.

Era berean, zerbitzua eremu profesionalerako edo pribaturako baino ezingo da erabili eta BEZEROAK zerbitzua hornitzeko eskatu duen helbidean baino ez.

Berariaz galarazita dago zerbitzua hirugarrenei berriro saltzea edo merkaturatzea edo zerbitzua hornitzeko eskatu den helbidetik kanpo partekatzea edo bezeroa jabeen erkidego bat bada, baterako eremuetatik kanpo erabiltzea. Baldintza hau betetzen ez bada, MOVISTAR-ek zerbitzua eten dezake Baldintza Orokor hauetako 5.7 klausulan xedatutakoaren arabera.

5.4. - Sartzeko gakoak.

Sartzeko gakoaren inguruan, BEZEROAK ondorengo betebeharrak hartzen ditu bere gain:



5.4.1. - Esleipena

Zerbitzurako sarbidea identifikatzaile baten bidez (ID) edo BEZEROAK aukeratutako erabiltzaile izen eta pasahitz baten bidez egingo da, eta MOVISTAR-ek ezarritako mugen mende egongo da (aurrerantzean, "identifikatzailea" eta "pasahitza" hurrenez hurren eta "sarbide-gakoak" multzoan hartuz gero).

Zerbitzuetan alta emanez gero, BEZEROAK dagokion inprimakian adieraziko du beste bezeroekin zer izen erabiliko duen (aurrerantzean "Identifikatzailea").

BEZEROAK ezingo du Identifikatzaileako hitz, esamolde edo multzo grafiko itsusirik, iraintzailearik, markekin bat datorrenik, izen komertzialekin bat datorrenik, establezimenduen errotulurik, gizarte-izendapenik, publizitate-adierazpenik, garrantzi publikoko jendearen edo ospetsuen izenek edo goitizenik erabili baimenik ez badute eta, oro har, legearen edo moralaren eskakizunen eta onartutako praktika onen aurka badao.

Bezeroak aukeratu ezik, identifikatzailea automatikoki esleituko da. Dena dela, MOVISTAR-ek aurreko paragrafoan xedatutakoaren aurkako identifikatzaileak eten edo baliogabetzeko eskubidea du. Era berean, MOVISTAR-ek alde bakarretik, edozein unetan eta aurrez abisatu gabe aldatu, eten edo atzera bota dezake hasieran esleitutako Identifikatzailea, MOVISTAR-ek eskainitako zerbitzuetan BEZEROAK dituen Identifikatzaileak edo erabiltzaile izenak bateratzeko; horren berri berehala emango zaio BEZEROARI.

BEZEROAK edonoiz aldatu ahal izango du sartzeko gakoa, MOVISTAR-ek finkatutako murrizketak aintzat hartuta.

5.4.2. - Erabilera eta zaintza.

BEZEROAK sartzeko gakoak arduraz erabiltzeko hitzematzen du, eta haiek isilpean gordetzeko.

Nolanahi ere, BEZEROAK ordaindu beharko ditu BEZEROAREN sartzeko gakoak erabiltzen dituen hirugarren pertsona batek zerbitzuak erabili izanak eragindako gastuak, BEZEROAK MOVISTAR-i sartzeko gakoak desaktibatze eskatzen dion arte. Aurrekoaren salbuespen gisa, erabilera hori MOVISTAR-en administrazio edo kudeaketako akats baten ondorioz edota MOVISTAR-i bakarrik egotzi ahal zaion beste arrazoiren batengatik bada, BEZEROAK ez ditu gastuak bere gain hartuko.

5.5. - Zerbitzuarekin batera emandako software kopiak.



BEZEROAK softwarearen kopia bakarra egin ahal izango du eta zerbitzuarekin konexioa ezartzeko ekipo informatikoaren disko gogorrean erabiltzeko baino ez du egingo. BEZEROAK ez du softwarearen beste kopiarik egingo, eta ez du hirugarrenei kopiarik bidaliko, ez haien esku utziko edozein bide erabiliz; era berean, ez du softwarea erabiliko Baldintza Orokor hauetan azaltzen diren xedeetatik kanpo eta BEZEROAK bere esku dauden programaren kopiak edo kopia desegin ez ditu bere esku edukiko, Kontratu hau amaitutakoan.

5.6. - Edukiak zuzen erabiltzea.

5.6.1. - Edukiak igortzea, zabaltzea eta hirugarrenen esku jartzea, berdin dio atariaren bidez lortu diren edo ez.

BEZEROAK hitzematen du zerbitzua eta informazioa, mezuak, grafikoak, marrazkiak, soinu/irudi artxiboak, argazkiak, grabazioak, softwarea eta, oro har, BEZEROAREN edo hirugarren bidez lortu, igorri, zabaldu edo eskura jarritako material denak (aurrerantzean "edukiak") legearen, Baldintza Orokor hauen, moralaren eta oro har onartutako ohitura onen eta ordena publikoaren arabera erabiliko dituela.

BEZEROAK hitzematen du ez dituela atariko zerbitzuen bidez erabili, igorri, zabaldu edo hirugarrenen esku utziko "eduki" hauek: (a) konstituzioan, nazioarteko tratatuetan eta gainerako ordenamendu juridikoan aitortutako oinarritzko eskubideen eta askatasun publikoen aurka doana, mespretxatzen duena edo aurka egiten duena bada; (b) delituzko jarduerak, laidotzaileak, iraingarriak, indarkeriazkoak edo, oro har, legearen, moralaren eta onartutako ohitura onen edo ordena publikoaren aurkako jarduerak eragiten, sustatzen edo bultzatzen dutenak badira; (c) sexu, arraza, erlijio, sinesmen, adin edo baldintzagatik baztertzen duten jarduerak, jarrerak edo pentsamenduak eragiten, sustatzen edo bultzatzen badituzte; (d) produktu, elementu, mezu edota delituzko zerbitzuetara, indarkeriazkoetara, pornografikoetara, iraingarrietara edo, oro har, legearen, moralaren eta onartutako ohitura onen edo ordena publikoaren aurkakoetarako sarbidea ematen badute edo eskura jartzen badute ; (e) beldur eta larritasun egoera onartezina eragiten badute edo eragin badezakete; (f) praktika arriskutsuak egitera, osasunarentzako eta oreka psikikorako arriskutsuak edo kaltegarriak direnena bultzatzen badute; (g) gezurrezkoak, anbiguoak, zehatzak ez direnak, gehiegizkoak edo denboraz kanpokoak direnak eta ondorioz bere xedeen edo komunikatzailearen asmoen berri gaizki eman dezaketenak badira; (h) hirugarrenen jabetza intelektualeko eta industrialeko eskubideek babestuta baldin badaude eta BEZEROAK ez badu aurrez titularren baimenik lortu erabilerara horretarako edo egin nahi duen erabilerarako; (i) "copyright" bat edo bestelako datuak badituzte besteko eskubide edo gailu teknikoetara buruz,



aztarna digitalak edo informaziorako beste edozein mekanismo kendu edo manipulatu bada; (j) hirugarrenen enpresa eskubideak bortxatzen badituzte; (k) zuzenbidearen, ohorearen, intimitate pertsonal eta familiarren edo pertsonen irudiaren aurkakoak badira; (l) komunikazioetan sekretuaren araudia austen badute; (m) legez kontrako publizitatea bada, iruzurtia edo desleiala bada eta, oro har, lehia desleiala eragiten badute; (n) birusa badute edo sarearen, sistemaren edo hirugarrenen ekipo informatikoak (hardwarea eta softwarea) kaltetzeko edo funtzionamendu normala galarazteko elementu fisiko edo elektronikoren bat badute edo ekipo informatiko horietan biltegitratutako agiri elektronikoen eta artxiboak kaltetu badituzkete; (ñ) bere ezaugarrien ondorioz (luzapena, formatua...) zerbitzuaren funtzionamendu normala galarazten badute; (o) terrorismoaren, genozidioaren eta teoria errebisionisten apologia egiten badute.

MOVISTAR-ek ez du zertan kontrolatu eta ez du kontrolatzen BEZEROEK hirugarrenei igorritako, hedatutako edo eskura jarritako edukien izaera eta edukia bera. Dena dela, MOVISTAR-ek legearen mugen barruan, edozein unetan eta aurrez esan gabe, bere ekimenez edo hirugarrenek eskatuta eskubidea gordetzen du edukiak aztertzeko, eta beharrezko neurriak hartzeko eduki horiek ez igortzeko, hedatzeko edo hirugarrenen esku jartzeko, justifikatutako arrazoiak badaude.

5.6.2. - Informazioa lortzeko bideak.

BEZEROAK hitzematen du ez duela eskuratuko eta ez dela eskuratzen saiatuko atariko zerbitzuaren bitartez eskura daitezkeen edukirik, horretarako berariaz kasu bakoitzean eman edo adierazi diren baliabide edo prozeduretatik bestelakoak erabilita.

5.6.3. - Atariaren bidez lortutako edukien erabilera zuzena.

BEZEROAK hitzematen du arduraz eta zuzen erabiltzeko atariko zerbitzuen bitartez eskura daitezkeen edozein eduki, legearen, moralaren, oro har ontzat ematen diren ohitura egokien eta ordena publikoaren arabera. Bereziki, BEZEROAK hitzematen du ez duela honelakorik egingo: (a) Edukiak erreproduzitu, kopiatu, banatu, komunikazio publikoko edozein modalitatearen bitartez jendeak haiek eskuratzeko aukera eman, eraldatu edo aldatu, ezpada egokiak diren eskubideen titularraren baimenarekin edo legez onartuta; (b) Edukietara txertatutako titularren eskubideen "copyrighta" eta gainerako identifikazio-datuak, eta, halaber, edukiek dituzten babesteko gailu teknikoak, hatz digitalak edo edozein informazio-mekanismo ezabatu, saihestu edo manipulatu; (c) Edukiak legearen, moralaren, oro har ontzat ematen diren eta ohitura egokien eta ordena publikoaren aurkako eran edo aurkako ondorioekin erabiltzea, d) Beren formatuagatik (adibidez, zabalera, formatua, etab.) zerbitzu osagarrien ohiko funtzionamendua galaraz dezaketen elementuak transmititzea edo hedatzea; eta (e)



TXAT zerbitzuari dagokionez, html etiketak dituzten elementuak transmitzea edo hedatzea (adibidez, bannerrak, botoiak, hiperrestekak...).

5.7. - Zerbitzuak eskuratzeko aukera kentzea eta etetea.

MOVISTAR-ek ahalmena izango du zerbitzuak ematea kendu edo kautelazko neurri gisa eteteko Baldintza Orokor hauetan finkatuta dagoena betetzen ez duten BEZEROEI, behar den moduan jakinarazita, aldeztatik ohartu beharrik gabe.

5.8. - Splitterra/ONTaren erabilera.

MOVISTAR-ek BEZEROAREN etxean splitterra/ONTa/hargune optikoa instalatzen badu, hark ezingo du instalazio horretan aldaketarik egin edo lekuz aldatu. MOVISTAR-ek instalatu duen puntuan bakarrik erabili ahal izango du, eta ezingo du transmititu tituluren batekin, ez eta hirugarren bati erabiltzeko utzi ere.

Hala ere, BEZEROAK splitterra edo ONTa/hargune optikoa lekuz aldatzeko eskatu ahal izango dio MOVISTAR-i. Aldeztatik onespina jasota, instalazio puntua aldatuko da, eta lekualdatze horri dagokion zenbatekoa BEZEROARI fakturatuko zaio; eskaera egindakoan emango zaio horren berri.

5.9. - BEZEROAREN instalazio eta ekipa informatikoetara sartzea.

BEZEROAK hitzematzen du, aldeztatik eskatuta eta egokia den hitzordua hitzartu ondoren, berriazko baimena emateko MOVISTAR-i, behar den moduan identifikatutako bertako langileei edo eginkizun horretarako MOVISTAR-ek izendatutako zerbitzu teknikoari zerbitzurako konexioa instalatuta dagoen instalazio eta tresneriara iristeko; horrela, instalatzeko edo konpontzeko zerbitzuak eman ahal izango dituzte, eta MOVISTAR-en iritziz beharrezkoak diren mantentzeko lanak egin, eta, kontratua amaituz gero, zerbitzuetara konektatzeko aukera ematen duen instalazioa kentzeko.

5.10. – Urruneko Mantentze Lanen Zerbitzua.

BEZEROAK doan izango du eskura ADSL ZERBITZUA emateari lotutako konektibitateko ekipamenduaren konfigurazioaren urruneko mantentze lanen zerbitzua. Horri esker, modem/routerraren deskonfigurazioaren eraginez ADSL ZERBITZUA eroriz gero, konexioa automatikoki berreskuratu ahal izango da, MOVISTAR-eko langile baimendunak dagokion etxebizitzako instalaziora sartu beharrik gabe.



MOVISTAR urrunetik konektibitateko ekipamendura sartuko da ADSL ZERBITZUA hornitzeko helburu bakarrarekin, kalitate baldintzarik onenetan ahalik eta lasterren ADSL ZERBITZUA konpontzeko xede hutsarekin.

Konektibitateko ekipamenduaren konfigurazioaren urruneko mantentze-laneko zerbitzuak inolaz ere ez du berekin ekarriko MOVISTAR-eko langile baimenduak bertan bizi den BEZEROAK bere ekipo informatikoan daukan informazioa eskuratzea.

Urruneko mantentze zerbitzuaren eskuragarritasuna zerbitzua bera emateko eskuragarritasun teknikoaren menpe egongo da, eta baita ADSL ZERBITZUA ematearekin lotutako konektibitateko ekipamenduaren ezaugarri teknikoen arabera ere.

6. - MOVISTAR-en BETEBEHARRAK

6.1. - Zerbitzu Mailaren Konpromisoa.

6.1 klausula honetan azpimarratutako alderdiak ZERBITZUARI dagozkio, Baldintza Orokor hauetako 3. klausulan deskribatuta dagoenaren arabera.

6.1.1. - Eskuragarritasuna.

MOVISTAR-ek hitzematzen du ZERBITZUA modu erregular eta jarraituan eskainiko duela urte osoan eta eguneko 24 orduetan.

Dena dela, zerbitzu hori eten egin daiteke MOVISTAR-ek sarearen mantentze-lanetarako behar duen denboran (aurrerantzean "Sarearen mantentze-lanak") edo halabeharrezko edo ezinbesteko zergatiengatik. Nolanahi ere, MOVISTAR-ek sarearen mantentze-lanak noiz egingo diren jakinaraziko dio BEZEROARI, teknikoki ahal denean eta arrazoizko epe baten barruan.

MOVISTAR-ek ahalegin guztiak egingo ditu etena ahalik eta laburrena izan dadin eta BEZEROAK ahalik eta erasanik txikiena izan dezan.

MOVISTAR-ek ez du zerbitzuaren eskuragarritasuna bermatzen, BEZEROAK ekipamendu informatikoan hardware- edo software-elementuak sartu baditu eta horrek funtzionamendu arrunta edo Internetera sartzen jarraitzea galarazten badu.

MOVISTAR ez da BEZEROAREN ekipo informatikoaren ez konektibitateko ekipamenduaren arduradun izango, eta zerbitzuaren funtzionamendu arruntean



ekipo horretan izan daitezkeen gorabeheren erantzukizuna ere ez du bere gain hartuko.

6.1.2. - Eskuragarritasun gabeziagatiko erantzukizuna.

MOVISTAR-ek zerbitzuaren eskuragarritasun gabezia bategatik bakarrik erantzungo du, MOVISTAR-i zuzenean leporatzeko arrazoi bategatik gertatu denean.

Fakturazio epe batean zehar BEZEROAK aldi baterako zerbitzuaren etenaldiak jasango balitu, betiere matxura ADSL zerbitzuari eusten dion sarean gertatuko balitz, 4.11. klausulan xedatutakoaren arabera, MOVISTAR-ek BEZEROARI zerbitzua eskuratu ezineko aldiak iraungo lukeen tartean zehar zerbitzua ordaintzeko kuotari legokiokeen zati proportzionala itzuliko lioke. MOVISTAR-ek kalte-ordaina emango dio BEZEROARI baldin eta etena 8etatik 22etara bitartean eta sei ordu baino gehiagokoa izan bada. Uneko fakturan zehaztuko da abonatuari dagokion kalte-ordainaren data, iraupena eta zenbatekoa kalkulatzeko.

Hala eta guztiz ere, baldin eta aldi baterako etena ezinbesteko arrazoiek eragindakoa bada, MOVISTAR-ek ordaina emango dio BEZEROARI, bere horretan, zerbitzua ordaintzeko kuotaren zenbatekoa itzultzearen bitartez, zerbitzua eskuratu ezinak iraun duen denborarekin hainbanatuta, beste edozein kalte-ordain izan ezik.

6.1.3.- Eskuragarritasun faltagatik kalitateko betebeharrak ez betetzearen erantzukizuna

Aurreko paragrafoan xedatutakoari gehituz, eta komunikazio elektronikoko zerbitzuak ematerakoan zaindu beharreko kalitatearen inguruan indarrean dagoen legedia beteaz, MOVISTAR-ek kalte-ordaina emango dio BEZEROARI baldin eta BEZEROARI ez dagozkion arrazoiengatik, zerbitzuaren hilabeteko etenaldiak batuta guztira 48 ordu gaingidituko balituzte.

6.1.4.- Eskuragarritasun gabezia eta balizko baztertzeengatik ordain emate eta kalte-ordainak aplikatzeko modua

6.1.3 klausulan finkatutako kalte-ordaina aldeztu aurretik BEZEROAK eskatuta aplikatuko da. Zerbitzua berriz finkatuta gelditu zen egunaren osteko 10 eguneko epean egin ahal izango du eskaera, 1004 telefono-zenbakira deituta edo www.movistar.es web-orrian, norbere datuak eta etenda egon zen linearen zenbakia adierazita.



6.1.3 klausulan aurreikusitako kalte-ordaina etenaldiak eragindako fakturaren hurbileneko fakturan edo horren hurrengoan aplikatuko da, baldin eta fakturatzeko prozesuak itxita egon baldin badira, eta zerbitzuaren hilabeteko inkomunikazio aldia 48 ordu baino gehiagokoa izan bada, zerbitzua ordaintzeko kuotaren zati proportzionala itzuliko litzateke.

Ez da aplikatuko 6.1.2 eta 6.1.3 klausuletan xedatutakoa, baldin eta aldi baterako etenaldia honako arrazoi hauetakoren batek eragin badu:

- a) Kontratu-baldintzen abonatuaren arau-hauste larria.
- b) BEZEROAK indarrean dagoen araudiaren arabera adostasuna ebaluatu gabeko terminal ekipamenduak konektatzeagatik sarean eragindako kalteak.
- c) 6.1.1. klausulan adierazitako Sareko Mantentze Lanen ondorioz Zerbitzua etetea.
- d) BEZEROAK bere ekipo informatikoaren funtzionamendu orokor txarra eragiten duten edo zerbitzura sartzeko ekipo horretan behar diren elementuekin bateraezinak diren Hardware edo Softwareko elementuak sartzek eragindako zerbitzuaren etenaldiak.
- e) MOVISTAR-i ez dagokion sarbideko sare-tartean identifikatutako matxurek eragindako zerbitzuaren etenaldiak (Telekomunikazioko Azpiegitura Komunak eta Bezeroaren Sarea).
- f) Zerbitzua sustengatzeko BEZEROAREN telefonoko barne linean edozein matxuragatik zerbitzua eskuratu ezina, matxura BEZEROARI edo MOVISTAR-i ez dagokion hirugarren bati lepora dakiokkeen arrazoi bategatik gertatu denean.
- g) Konektibitateko ekipamenduaren konfigurazio eta funtzionamenduko edozein arazorengatik zerbitzua eskuratu ezina, konfigurazioa galtzea edo funtzionamenduhutsegitea BEZEROARI leporatzeko moduko arrazoiagatik gertatu denean, nahiz eta ekipamendu hori MOVISTAR-i alokatua izan.
- h) Energia elektrikoaren hornikuntzako edozein arazorengatik konektagarritasuna galtzea.

6.1.5. - Bermatutako eskuragarritasun gabeziaren iraupena.

6.1.2 eta 6.1.3 klausuletan aurreikusitakoak eragina izan dezan, zerbitzuaren eskuragarritasun bermatuaren gabezia zenbatuko da, nahiz BEZEROAREN matxuradeia jasotzen den unetik, nahiz MOVISTAR-ek zerbitzuaren etenaldi erabatekoa edo partziala eragin duen gertaera erregistratu duenetik, jakinarazitako matxura konpondu eta zerbitzua berriz egoki finkatzen den unera arte.

Matxura konpontzeko etxera joan behar izanez gero, MOVISTAR-ek hitzartutako hitzordua eskainiko dio BEZEROARI. BEZEROAK ez du zertan onartu MOVISTAR-ek proposatutako lehenengo hitzordua. Baina MOVISTAR-ek eskainitako lehenengo hitzordutik BEZEROAK azkenean onartutakora igarotako denbora ez da kontatuko zerbitzuaren eskuragarritasun gabezia legez.



Era berean, zerbitzurik gabe zenbat denboraz egon den konputatzeko, ez da kontuan izango aurrez hitzordua adostu eta BEZEROAK MOVISTAR-i bere instalazioetara edo ekipo informatikora sartzeko baimena ukatu dion denbora. Ondorio horietarako, hitzartutako edo adostutako hitzordua esatean MOVISTAR eta BEZEROAREN artean adostutakoaz ari gara; eta hitzordu horretan matxura oro konpontzeko data, ordua eta tokia finkatzen dira. Bestalde, zerbitzurik gabe zenbat denboraz egon den konputatzeko, ez da kontuan izango BEZEROAREN erruz egondako atzerapena.

6.1.6. – Konexioko epea

MOVISTAR-ek zerbitzura konektatzeko hasierako eskaera guztiak bete beharko ditu, eskaera jaso eta ondoko egutegiko 60 egunen barruan, betiere, teknikoki egin badaiteke, eta tartean ezinbesteko eragozpenik edo eskatzaileari lepora dakizkiokeen eragozpenik ez badago. Zerbitzua kontratatu baino lehenago, MOVISTAR-ek BEZEROARI baieztatuko dio teknikoki zerbitzua eman daitekeen ala ez.

Hala ere, gerora sortutako arrazoiak badaude -hala nola lan gehigarriak egin beharra, hirugarren pertsonen baimenak edo ziklo jakin batzuetan eskaera puntual gehiago izate hutsa-, hasierako konexio-epea luzatu liteke, eskatzaileari horren berri eman ondoren.

6.1.7.- Ordain ematea konexio-epea ez betetzeagatik

Baldin eta lehen aipatutako egutegiko 60 eguneko epearen barruan sarera konektatzeko eta zerbitzua eskuratzeko eskaera bat ezin bada asebate, MOVISTAR-ek kalte-ordaina emango dio BEZEROARI, zerbitzuari dagozkion hileko kuoten kopuru jakin bat, adierazitako epe hori gaintitu deneko hilabete kopurua edo zatikiaren baliokidea, ordaindu beharretik salbuetsiz, nola eta ez dauden ezinbesteko arrazoiak edo eskatzaileari lepora dakizkiokeenak.

Hornikuntza egiteko berariaz baimenak, okupazio edo igarotzeko eskubideak lortzea beharrezkoa bada, MOVISTAR-ek arrazoi horiei dagozkien atzerapenak edo berari leporatzerik ez dagoen beste edozein arrazoi deskontatu ahal izango ditu; aldez aurretik eskatzaileari atzerapenen berri emango zaio, beharrezko dokumentu-egiaztapenarekin.

6.1.8.- Konexio-epea ez betetzeagatik ordain emate eta kalte-ordainak aplikatzeko modua

6.1.7 klausulan finkatutako kalte-ordaina aldez aurretik BEZEROAK eskatuta aplikatuko da. Zerbitzua berriz finkatuta gelditu zen egunaren osteko 10 eguneko



epean egin ahal izango du eskaera, arreta pertsonaleko 1004 telefono-zenbakira deituta edo MOVISTAR-en www.movistar.es web-orrian, norbere datuak eta zerbitzuari lotutako linearen zenbakia adierazita, ADSL zerbitzuaren konexio-epea ez betetzeagatik erreklamazioa eginda.

6.2. - Instalazio Zerbitzua.

BEZEROAK eskatzen duenean, MOVISTAR-ek hitzematzen du BEZEROARI konektibitateko ekipamendua instalatzeko, 4.6. klausulan adierazitakoaren arabera.

MOVISTAR-ek ez du bere gain inolako erantzukizunik hartzen BEZEROAREN ekipo informatikoak izan dezakeen edozein arazorekiko.

6.3. - BEZEROARENTZAKO Arreta Zerbitzua.

MOVISTAR-ek BEZEROARENTZAKO Arreta Zerbitzua egin behar du 4.8klausulan ezarritako eran.

6.4. - Sarbide gakoaren erabilera eta zaintza.

MOVISTAR-ek bere bezeroen sarbide-gakoak isilpekoak izatea ziurtatuko du.

Bereziki, MOVISTAR-ek hitzematzen du urruneko Telekudeaketaren bitartez laguntza teknikoko zerbitzua emateko BEZEROAK konektibitateko ekipamenduko sarbide-gakoaren konfidentziasuna zaintzeko.

7. - ZERBITZUAREN BIDEZ ESKURATU DAITEZKEEN ZERBITZU ETA EDUKIENGATIKO ERANTZUKIZUNA.

7.1. - Zerbitzuengatiko erantzukizuna.

7.1.1. - ADSL Zerbitzuaren jarraipena.

MOVISTAR-ek ZERBITZUAREN jarraipena baizik ez du bermatzen, 6.1 klausulan ezarritako eran.



MOVISTAR-ek bere erantzukizuna 6.1.2 eta 6.1.3. klausuletan aurreikusitako kopurura mugatzen du zerbitzua ematean jarraipen ezak, etenek edo akatsek eragindakoak izan daitezkeen edozein eratako kalte eta galeren kasuan.

7.1.2. - ZERBITZUAREN bidez eskuratu daitezkeen zerbitzuen eta edukien erabilgarritasuna eta hutseginkortasuna.

MOVISTAR-ek ez du bermatzen ZERBITZUAK erabilgarria direnik edozein jarduera egiteko, ezta zerbitzua eta edukia hutsezinak direnik ere, eta bereziki, nahiz eta ez modu eskusiboan, BEZEROEK Interneteko atarietara sartzeko aukera izango dutenik zerbitzuaren bidez, eta zerbitzu horren bidez hirugarrenei edukia igorri, bidali, hedatu, biltegitatu edo beraien esku jartzea izango dutenik eta zerbitzuen bidez edukia jaso, lortu edo edukietan sartu daitezkeenik ere ez.

MOVISTAR-ek EZ DU INOLAKO ERANTZUKIZUNIK BERE GAIN HARTZEN ONDORENGO ARRAZOIENGATIK GERTA DAITEZKEEN EDOZEIN ERATAKO KALTE ETA GALERENGATIK: ERABILTZAILEEK ZERBITZUEI LEPORATU AHAL DIETEN ERABILGARRITASUNEAN IRUZUR EGIN IZANA, ZERBITZU NAHIZ EDUKIEK HUTS EGIN IZANA ETA, BEREZIKI, ARRAZOI BAKARRA EZ IZAN ARREN, AKATSAK IZATEA INTERNETEN DAUDEN HAINBAT GUNETAN ZERBITZUEN BIDEZ SARTZERAKOAN, ZERBITZUEN BITARTEZ EDUKIAK HELARAZI, HEDATU, BILDU EDO HIRUGARREN PERTSONEN ESKU JARTZEAN EDO ZERBITZUEN BITARTEZ EDUKIAK JASO, LORTU EDO ESKURATZEAN.

7.1.3. - Zerbitzuen erabileraren pribatutasuna eta segurtasuna.

MOVISTAR-ek ez du bermatzen BEZEROEK erabilitako zerbitzuen pribatutasuna eta segurtasuna, bereziki baimenik gabeko hirugarrenek ez jakitea BEZEROEK Internetekin egin dezaketen erabileraren, ezaugarrien, baldintzen eta motaren berri; ezin dute bermatu, halaber, hirugarrenak ez direla sartuko eta kenduko, aldatuko, ezabatuko edo manipulatu BEZEROEK zerbitzuaren bidez igorri, hedatu, biltegitatu, eskura jarri, jaso, lortu edo sartutako eduki eta komunikazioetan.

MOVISTAR-ek, ANTOLAMENDU JURIDIKOAK EMATEN DUEN AHALMEN OSOA BALIATUZ, UKO EGITEN DIO ERANTZUKIZUN ORORI ONDORENGO ARRAZOIENGATIK GERTA DAITEZKEEN EDOZEIN ERATAKO KALTE ETA GALERENGATIK: HIRUGARREN BATZUEK ERABILTZAILEEK EGIN DEZAKETEN INTERNETEN ERABILERA ZER MOTA, BALDINTZA, EZAUGARRI ETA INGURUABARREKOA DEN JAKITEA EDO BEZEROEK NAHIZ ERABILTZAILEEK ZERBITZUAREN BITARTEZ HELARAZTEN, HEDATZEN, BILTZEN, ESKURA JARTZEN,



JASOTZEN, LORTZEN EDO ESKURATZEN DITUZTEN ERA GUZTIETAKO EDUKI ETA KOMUNIKAZIOAK EDOZEIN ERATARA ESKURATU, ATZEMAN, EZABATU, ERALDATU, ALDATU EDO MANIPULATZEA.

7.2. Edukiengatiko erantzukizuna.

7.2.1. - Kalitatea.

MOVISTAR-ek ez du erabat bermatzen igorri, hedatu, biltegitatu, jaso, lortu edo eskura jarritako zerbitzuen bidez eskuratu daitezkeen edukiak birusik gabe daudenik, ezta BEZEROAREN ekipoan edo BEZEROAREN ekipo informatikoan biltegitatutako edo ekipo horretatik igorritako agiri elektronikoetan eta fitxategietan gorabeherak eragin ditzaketen bestelako elementurik izango ez dutenik ere. Era berean, ez du bermatzen zerbitzuen bidez hirugarrenek egindako zerbitzuetan birusik egongo ez denik.

MOVISTAR-ek EZ DU INOLAKO ERANTZUKIZUNIK ZERBITZUEN BIDEZ IGORRI, ZABALDU, BILTEGITATU, JASO, LORTU EDO ESKURATUTAKO EDUKIETAN BIRUSAK EDO BESTE ELEMENTUREN BATZUK EGOTEAREN ONDORIOZKO KALTEETAN.

7.2.2. - Zilegitasuna, fidagarritasuna eta erabilgarritasuna

MOVISTAR-ek ez du inolako harremanik eta ez du esku hartzen honako ekintza hauetan: zerbitzuen bitartez helarazi, hedatu, bildu, jaso, lortu, eskura jarri edo eskura daitezkeen edukiak sortu, helarazi eta eskura jartzen, eta ez du bermatzen haien zilegitasuna, fidagarritasuna eta erabilgarritasuna.

MOVISTAR-ek EZ DU INOLAKO ERANTZUKIZUNIK BERE GAIN HARTZEN ONDORENGO ARRAZOIENGATIK GERTA DAITEZKEEN EDOZEIN ERATAKO KALTE ETA GALERENGATIK: ZERBITZUEN BITARTEZ EDUKIAK HELARAZI, HEDATU, BILDU, ESKURA JARRI, JASO, LORTU EDO ESKURATZEA; BEREZIKI, ARRAZOI BAKARRA EZ IZAN ARREN, HONAKO HAUENGATIK: (A) ZERBITZUEN BITARTEZ EDUKIAK HELARAZI, HEDATU, BILDU, ESKURA JARRI, JASO, LORTU EDO ESKURATZEAREN ERAGINEZ, LEGEA, MORALA ETA ORO HAR ONTZAT EMATEN DIREN OHITURA ONAK EDO ORDENA PUBLIKOA EZ BETETZEA; (B) ZERBITZUEN BITARTEZ EDUKIAK HELARAZI, HEDATU, BILDU, ESKURA JARRI, JASO, LORTU EDO ESKURATZEAREN ERAGINEZ, HONAKO ESKUBIDE HAUEK HAUSTEA: JABETZA INTELEKTUAL ETA INDUSTRIALEKO ESKUBIDEA, ENPRESA SEKRETUENA, EDOZEIN ERATAKO KONTRATU KONPROMISOENA, OHOREA, INTIMITATE PERTSONAL ETA FAMILIARRA ETA PERTSONEN IRUDIARENA, JABETZA ESKUBIDEA ETA HIRUGARREN BATI



DAGOZKION BESTE GUZTIAK; (C) ZERBITZUEN BITARTEZ EDUKIAK HELARAZI, HEDATU, BILDU, ESKURA JARRI, JASO, LORTU EDO ESKURATZEAREN ERAGINEZ, LEHIA DESLEIALEKO ETA ZILEGI EZ DEN PUBLIZITATEKO EKINTZAK GAUZATZEA; (D) ZERBITZUEN BITARTEZ EDUKIAK HELARAZI, HEDATU, BILDU, ESKURA JARRI, JASO, LORTU EDO ESKURATUTAKO EDUKIAK EZ IZATEA EGIAZKOAK, ZEHATZAK, ZORROTZAK, EGOKIAK EDO TA EGUNERATUAK; (E) ZERBITZUEN BITARTEZ EDUKIAK HELARAZI, HEDATU, BILDU, ESKURA JARRI, JASO, LORTU EDO ESKURATUTAKO EDUKIAK EZ IZATEA EGOKIAK EDOZEIN ASMOTARAKO ETA HAIEN BITARTEZ SORTUTAKO ITXAROPENAK EZ BETETZEA; (F) ZERBITZUEN BITARTEZ EDUKIAK HELARAZI, HEDATU, BILDU, ESKURA JARRI, JASO, LORTU EDO ESKURATUTAKO EDUKIEN BITARTEZ EDO EDUKI HORIEK ESKURATZEAGATIK HIRUGARRENEKIN HITZEMANDAKO BETEBEHARRAK ETA HIRUGARRENEKIN HITZARTUTAKO KONTRATUAK EDOZEIN ARRAZOIGATIK EZ BETETZEA, BERANDU BETETZEA, OKER BETETZEA EDO BERTAN BEHERA UZTEA; (G) ZERBITZUAREN BITARTEZ ESKURA DAITEZKEEN HIRUGARRENEKIN ZERBITZUEN BIDEZ SALEROSI, ESKURATU EDO EMANDAKO ERA GUZTIETAKO PRODUKTU ETA ZERBITZUETAN ERA GUZTIETAKO AKATSAK ETA OKERRAK.

7.3. - Zerbitzuen bidez hirugarrenek egindako zerbitzuengatiko erantzukizuna.

7.3.1. - Kalitatea.

MOVISTAR-ek ez du erabat bermatzen zerbitzuen bidez hirugarrenek egindako zerbitzuetan birusik egongo ez denik.

HIRUGARRENEK ZERBITZUEN BIDEZ EMANDAKO ZERBITZUEN KALITATEKO AKATSEN ONDORIOZ EGON DAITEZKEEN KALTEEN ERANTZUKIZUNIK EZ DU MOVISTAR-ek.

MOVISTAR-ek ez du zertan kontrolatu eta ez du kontrolatzen hirugarrenei igorritako, hedatutako edo eskura jarritako edukien izaera eta edukia bera. Dena dela, MOVISTAR-ek legearen mugen barruan, edozein unetan eta aurrez esan gabe, bere ekimenez edo hirugarrenek eskatuta bezeroek igorritako, hedatutako edo hirugarrenen esku jarritako edukia aztertzeke eskubidea gordetzen du, eta beharrezko neurriak hartzeke eskubidea ere bai, eduki horiek ez igortzeke, hedatzeko edo hirugarrenen esku jartzeko, justifikatutako arrazoiak badaude.

7.3.2. - Zilegitasuna, fidagarritasuna eta erabilgarritasuna

MOVISTAR-ek ez du inolako zerikusirik eta zerbitzuen bidez hirugarrenek eskainitako zerbitzuen konfigurazioan eta eskaintzean ez du esku hartzen; era berean, zerbitzuen



bidez hirugarrenek eskainitako zerbitzuen zilegitasuna, fidagarritasuna eta erabilgarritasuna ez ditu bermatzen.

MOVISTAR-ek EZ DU INOLAKO ERANTZUKIZUNIK BERE GAIN HARTZEN HIRUGARRENEK ZERBITZUEN BIDEZ EGINDAKO ZERBITZUEN ONDORIOZ GERTA DAITEZKEEN EDOZEIN ERATAKO KALTE ETA GALERENGATIK, HONAKO ARRAZOI HAUEN ONDORIO BADIRA: (A) ZERBITZUEN BITARTEZ HIRUGARRENEK EGINDAKO ZERBITZUEN ONDORIOZ, LEGEA, MORALA ETA ORO HAR ONTZAT EMATEN DIREN OHITURA ONAK EDO ORDENA PUBLIKOA EZ BETETZEA; (B) ZERBITZUEN BITARTEZ HIRUGARRENEK EGINDAKO ZERBITZUEN ONDORIOZ, HIRUGARREN BATI DAGOZKION HONAKO ESKUBIDE HAUEK HAUSTEA: JABETZA INTELEKTUAL ETA INDUSTRIALEKO ESKUBIDEA, ENPRESA SEKRETUENA, EDOZEIN ERATAKO KONTRATU KONPROMISOENA, OHOREA, INTIMITATE PERTSONAL ETA FAMILIARRA ETA PERTSONEN IRUDIARENA, JABETZA ESKUBIDEA ETA HIRUGARREN BATI DAGOZKION BESTE GUZTIAK; (C) ZERBITZUEN BITARTEZ HIRUGARRENEK EGINDAKO ZERBITZUEN ONDORIOZ, LEHIA DESLEIALEKO ETA ZILEGI EZ DEN PUBLIZITATEKO EKINTZAK GAUZATZEA; (D) ZERBITZUEN BITARTEZ EDUKIAK HELARAZI, HEDATU, BILDU, ESKURA JARRI, JASO, LORTU EDO ESKURATUTAKO EDUKIAK EZ IZATEA EGIAZKOAK, ZEHATZAK, ZORROTZAK, EGOKIAK EDO EGUNERATUAK; (E) ZERBITZUEN BITARTEZ HIRUGARRENEK EGINDAKO ZERBITZUAK EZ IZATEA EGOKIAK EDOZEIN ASMOTARAKO ETA HAIEN BITARTEZ SORTUTAKO ITXAROPENAK EZ BETETZEA; (F) ZERBITZUEN BITARTEZ HIRUGARRENEK EGINDAKO ZERBITZUEN ONDORIOZ, HIRUGARRENEKIN HITZEMANDAKO BETEBEHARRAK ETA HIRUGARRENEKIN HITZARTUTAKO KONTRATUAK EDOZEIN ARRAZOIGATIK EZ BETETZEA, BERANDU BETETZEA, OKER BETETZEA EDO BERTAN BEHERA UZTEA; (G) ZERBITZUEN BITARTEZ HIRUGARRENEK EGINDAKO ZERBITZUETAN ERA GUZTIETAKO AKATSAK ETA OKERRAK EGOTEA.

7.4. - Baimentzen ez diren erabilerak.

MOVISTAR-ek ez du kontrolatzen BEZEROAK edo beste erabiltzaile batzuek erabiltzen duten sarbidea eta ez zerbitzuei ematen dieten erabilera. Bereziki, MOVISTAR-ek ez du bermatzen BEZEROAK edo beste erabiltzaile batzuk zerbitzuak Baldintza Orokor hauetan edo, kasuren batean, aplikatu beharrekoak izan litezkeen baldintza partikularretan xedatutakoaren arabera eskuratu edota erabiltzea.

MOVISTAR-ek EZ DU INOLAKO ERANTZUKIZUNIK BERE GAIN HARTZEN BEZEROAK EDO BESTE ERABILTZAILA BATZUEK, BALDINTZA OROKOR HAUETAN XEDATUTAKOAREN AURKA, ZERBITZUAK ESKURATU ETA ERABILTZEA ERAGIN DITZAKEEN ERA GUZTIETAKO KALTE ETA GALERATAN.



7.5. - BEZEROEK eurek emandako BEZEROEI buruzko identitatea eta informazioa.

MOVISTAR-ek ez du kontrolatzen eta ez du inolako bermerik eskaintzen BEZEROEK euren buruari buruz edo beste BEZERO edo erabiltzaile batzuei eman edo eskura jartzen dizkieten datuen egiazkotasuna, iraunaldia, zehaztasuna edota benetakotasunari buruz.

MOVISTAR-ek EZ DU INOLAKO ERANTZUKIZUNIK BERE GAIN HARTZEN ONDORENGO ARRAZOIENGATIK GERTA DAITEZKEEN EDOZEIN ERATAKO KALTE ETA GALERENGATIK: BEZEROAK EDO ERABILTZAILEAK OKER IDENTIFIKATZEA, ETA ERABILTZAILEEK BEREN BURUAZ EMANDAKO INFORMAZIOA EGIAZKOA EZ IZATEA, INDARREAN EZ EGOTEA, ETA SAKONA ETA/EDO BENETAKOA EZ IZATEA, BAITA BESTE BEZERO ETA ERABILTZAILE BATZUEI ESKURATUTAKOA ERE, BEREZIKI, BAINA EZ BAKARRIK, BEZERO EDO ERABILTZAILE BATEK ZERBITZUEN BIDEZ EGINDAKO KOMUNIKAZIO EDO TRANSAKZIO BATEAN HIRUGARREN BATEN NORTASUNA ORDEZKATZEA.

7.6. - Administrazio postontziaren erabilera.

BEZEROARI berari lepora dakizkiokkeen arrazoiengatik bere administrazio postontzia aktibatu ez bada, MOVISTAR-ek ez du erantzukizunik izango MOVISTAR-ek BEZEROARI postontzi horren bitartez jakinarazitako informazio garrantzitsua BEZEROAK ez ezagutzearekin lotutako edozein erantzukizunetan.

8. – ZIBERSEGURTASUNA.

BEZEROAK hitzematzen du kontratatutako zerbitzuak erabiliko dituela Movistar-en edo bestelako operadoreen sareen osotasuna errespetatuz, eta legea, morala, oro har onartutako ohitura onak eta ordena publikoa betez; eta, era berean, Baldintza Orokor hauetan debekatutako gainerako erabilerak errespetatu eta beteko dituela. Horrez gain, hitzematzen du ez dituela sareak erabiliko haienez kaltegarriak eta/edo legez kanpokoak diren xedeekin, Internet eta/edo hirugarrenen ekipo terminalen zerbitzuak zuzen egiteko oztopo izan ahal badira.

BEZEROAK ez ditu inola ere erabiliko ez aldatuko Movistar-en edo hirugarren baten sareen funtzionamenduan nola edo hala eragin dezaketen osagaiak, ekipoak edo instalazioak. Sareen osotasuna eta segurtasuna zaintzeko eta zerbitzuak behar bezala egingo direla bermatzeko, BEZEROAK muga hauek izango ditu sareak erabiltzean: zerbitzua gehiegikeriaz erabiltzea, erabilera partikularrerako



kontratutako edo merkatuko ohiko parametroak gaindituta, eta zerbitzua erabiltzeko bestelako moduak, sareak, zerbitzariak, gainerako ekipo informatikoak edo MOVISTAR-en edota hirugarren batzuen zerbitzuak gainkargatzen, kaltetzen edo erabilezin uzten badituzte.

BEZEROAK kontratatutako zerbitzuan aurreko paragrafoan finkatutako erabilera-mugaren bat betetzen ez badu, edo haren jarduerak MOVISTAR-en sareen erabilera okerren bat edota zibersegurtasuneko gorabeheraren bat sortu ahal badu, MOVISTAR-ek eskumena izango du trafikoa kudeatzeko neurri hauetakoren bat hartzeko, besteak beste, aurrez ohartarazi edo jakinarazi behar gabe: blokeatu, aldatu, murriztu, oztopatu, degradatu edo bereizi trafikoko edukien, eta zerbitzu edo kategoria zehatzen artean. Neurri horiek behar adina denboraz hartuko dira, sareko eta sarearen bidez egindako zerbitzuen eta, orobat, azken erabiltzaileen ekipo terminalen osotasunari eta segurtasunari eusteko. Hala ere, MOVISTAR-ek hitzematzen du bezeroari kalte gutxien egingo dion neurria hartuko duela, ahal den neurrian, betiere, gorabeheraren izaera aintzat hartuta.

Neurri horiek hartuta ere, horren ondorioz BEZEROARI ez zaio inolako kalte-ordainik edo konpentsaziorik eman beharko, eta, gainera, MOVISTAR-ek dagozkion ekintzak egin ahal izango ditu bere interesak babesteko.

Kontratutako zerbitzuak oker edo behar ez den moduan erabiliz gero, BEZEROAK izango du horren ardura MOVISTAR-en aurrean.

9.- IZAERA PERTSONALEKO DATUEN BABESA

Movistar-ek jakinarazten du bere bezeroen datuak Movistar-en Pribatutasun-politikan ezarritakoaren arabera tratatuko direla, zeinaren oinarritzko informazioa klausula honetan jasotzen den. Horren eduki osoa esteka honetan kontsulta daiteke: www.movistar.es/privacidad, ale bat eskatuz 1004 telefonoan edo Movistar dendetan.

Datu pertsonalak babesteko Europako araudiarekin bat etorriz eta Politika horretan ezarritakoaren arabera, Telefónica Taldeko enpresa hauek Movistar Bezeroaren datu pertsonalen tratamenduaren erantzunkide dira, kontratatuta dituen produktu eta zerbitzuen arabera: Telefónica de España, S.A.U. eta Telefónica Móviles España, S.A.U. (aurrerantzean eta guztiak batera, klausula honetan zehaztutako xedeetarako, "Movistar").

Movistar-en bezeroaren datuak Zerbitzua emateko tratatuko ditugu, eta baita beste helburu batzuetarako ere, Movistar bezeroak Pribatutasun-Politikan baimentzen dizkigunak; gainera, Politika horretan bezeroak behar duen informazio guztia jasotzen



da, bezeroaren baimena behar duten bestelako tratamendu batzuen gainean erabaki ahal izateko.

Bezeroak egintza honetan kontratua betearazteko beharrezkoak diren emandako datu pertsonalak, Zerbitzua emateko lortutakoak eta baita arreta- eta merkataritza-kanalen bidez lortutakoak ere, izaera pertsonaleko datuen informatizatutako fitxategietan sartuko dira, Movistar-en titulartasunpean.

Pribatutasun Politikan jasotako tratamenduez gain, Zerbitzua erabiltzeko baldintza eta baldintzak onartuz gero, Bezeroak informatu eta MOVISTARi baimena ematen die bezeroen datu horien tratamendu zehatzari, kontratatutako zerbitzuei eta bisita datuei. web eta fakturazioa, zeinen tratamendua beharrezkoa den, kontratua gauzatzean, Zerbitzua hornitzeko.

Bestetik, Pribatutasun-Politikan aurreikusitako beste helburuetarako, Movistar-ek datuen erabilera bere kofiantzazko hornitzaileei esleitu ahal izango die. Hornitzaile horien kategorietan sailkatutako zerrenda eguneratua eta euren funtzioei jarraiki datuen nazioarteko transferentziak egiten dituztenena ere aurkituko duzu helbide honetan: www.movistar.es/privacidad/info-adicional.

Halaber, Movistar-ek datu horien isilpeko tratamendua ziurtatzeko beharrezkoak diren neurriak hartuko dituela bermatzen du eta jakinarazten dizu, aipaturiko araudiaren arabera, datu horiek atzitzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, mugatzeko, aurkarazteko eta eramateko eskubideak erabili ahal dituzula, ondorengo posta elektronikoa honetara idatziz: (Gaia: DATUAK) TE_datos@telefonica.com, idazki bat bidaliz 46155 Posta-Kutxa, 28080, Madril helbidera, edo doaneko 224407 telefono zenbakiaren bitartez.

10. - INFORMAZIOA BILTZEKO TEKNOLOGIA ERABILI.

MOVISTAR-ek BEZEROARI ohartarazten dio informazioa biltzeko teknologia erabili ahal izango duela, zerbitzua BEZEROEN hobespenen arabera egokitzeko, zerbitzu berriak jartzeko, eta, orobat, zerbitzuari lotutako prestazio eta erraztasun berriak emateko, haien zuzen, bezeroen hobespenetara hobeto egokitutako produktuak eta zerbitzuak eskainiz. MOVISTAR-ek ez du inoiz ere informazioa biltzeko teknologiarik erabiliko BEZEROAREN ekipo informatikoan dagoen informazioa berreskuratzeke (MOVISTAR-ek instalatutako "cookieak" eskainitakoa izan ezik).

Baldintza Orokor hauetan ezarritakoari begira, MOVISTAR-ek BEZEROAREN ekipo informatikora bidaltzen dituen testu-artxibo txikiak dira cookieak, bezeroaren hobespenen erregistroa izatea eta itzultzen denean gogoratzea du xede. BEZEROAREN ekipamendu informatikoko nabigatzailearekin bat egiten dute eta ez



dira inolako mehatxua ez pribatutasunarentzako ez BEZEROAREN datuen segurtasunerako, erabiltzailerekin eta bere ekipo informatikoarekin modu anonimoan lotzen baitira. Beraz, BEZEROAK duen nabigatzailea cookieen teknologia hori onartzeko konfiguratuta egon beharko da.

Nolanahi ere, BEZERIAK galarazi ahal izango du bere disko gogorrean cookieak instalatzea, bere nabigatzaileko menuaren aukeratik jarraibideak betez.

11. - LIZENTZIARIK EZ.

MOVISTAR-ek baimena ematen dio BEZEROARI bera titular den Zerbitzuetako jabetza intelektualeko, industrialeko eta enpresa-sekretuen eskubideak erabiltzeko Baldintza Orokor hauetan ezarritakoaren arabera zerbitzuak erabiltzeko soilik. MOVISTAR-ek ez du erabiltzeko beste lizentzia edo baimenik ematen bere jabetza intelektual, industrial, enpresa-sekretu edo Zerbitzuei lotutako beste jabetza edo eskubideei buruz.

IP helbideak ez dira BEZEROARENAK, beraz, MOVISTAR-ek helbide horiek aldatu ditzake hori justifikatzen duten zergatiak egonez gero eta BEZEROARI jakinarazi ondoren. Besterik ezean, sareak IP helbide bat ematen dio BEZERO bakoitzari, modu dinamikoan, eta aldi behin berritzen du. Helbideratze-mota horri DINAMIKO esaten zaio, eta ez du kostu gehigarririk BEZEROarentzat,

Hala ere, badago aukera sareak IP helbide zehatz bat gorde dezan BEZEROarentzat. Helbideratze-mota horiei ESTATIKO esaten zaio, eta kontratatzeak kostu gehigarria du bezeroarentzat, prezioen eranskinean zehaztutako indarreko prezioen arabera.

MOVISTAR ez da BEZEROARI emandako IP helbide horren erabilera txarraren edo iruzurrezko erabileraren erantzulea, BEZEROAK edo hirugarren batek egiten duenean.

ADSL Top edo Premium + modalitateak kontratatzean, gerta liteke BEZEROAK duen IP helbidea aldatzea, ADSLko beste modalitateko zerbitzuren bat MOVISTAR-ekin kontratatzeagatik.

12. - KONTRATUA LAGATZEA

Kontratu honen xede den zerbitzua pertsonala da, baina bezeroak hirugarren bati laga diezaioke, Telefónica de España S.A.U.-k alde aurretik horretarako baimena ematen badio. Telefónica de España, S.A.U.-k kontratu hau lagatu ahal izango du, bezeroari



aldez aurretik jakinarazita indarrean dagoen araudiaren arabera, eta bezeroak kontratua ebazteko izan dezakeen eskubideari kalterik egin gabe.

13. - JABETZA INTELEKTUALEKO ESKUBIDEAK BORTXATUZ GERO ETA LEGEZ KONTRAKO EDUKIAK HAUTEMANEZ GERO ERABILIKO DEN PROZEDURA

MOVISTAR-ek erabat eta irmo gaitzesten ditu (i) jabetza intelektualeko eskubideen bortxaketak eta (ii) zigor ikuspegitik legezko kontrakotzat jotako edukien edo zerbitzuen ustiaketa.

MOVISTAR-ek erabat arbuiatzen du jabetza intelektualeko eskubideak bortxatzen dituzten edo zigor ikuspegitik legearen kontrakotzat jotzen diren edukia ematea, banatzea eta/edo baimentzea bere egituretan edota zerbitzuetan.

BEZEROAK edo hirugarren batek uste izanez gero Zerbitzuen bidez eskainitako edukiren batek bere jabetza intelektualeko eskubideak urratzen dituela, BEZERO edo hirugarren horrek jakinarazpen bat bidali beharko du MOVISTAR-era hauekin:

- (a) erreklamaziogilearen datu pertsonalak: izena, IFZ/IFK, helbidea, telefono zenbakia eta helbide elektronikoa;
- (b) egiazko sinadura edo parekoa, urratutako jabetza intelektualeko titularraren datu pertsonalekin, edo ustez urratutako jabetza intelektualeko eskubideen titularraren izenean eta kontura aritzeko baimenduaren datuekin;
- (c) ustez urratu diren eta jabetza intelektualaren eskubideen bidez babestutako edukien adierazpen zehatza eta osoa, baita horien kokapena ere;
- (d) ustez urratu diren eta jabetza intelektualaren eskubideen bidez babestutako edukia titularraren baimenik gabe jarri direla eskuragarri dion berriazko adierazpen argia;
- (e) erreklamaziogilearen ardurapean egindako adierazpen argi eta berriazkoa esanaz jakinarazpenean emandako informazioa zehatza dela eta edukia sartzea bere jabetza intelektualaren urraketa dela.

BEZERO batek edo hirugarren batek uste badu zerbitzu edo eduki baten edota horien erabileraren legez kontrako izaera adierazten duten gertaerak edo gorabeherak daudela, edota horiekin zerikusia duen legez kontrako jardueraren bat egin dela, jakinarazpen bat igorri beharko du MOVISTAR-era honakoekin:

- (a) erreklamaziogilearen datu pertsonalak: izena, IFZ/IFK, helbidea, telefono zenbakia eta helbide elektronikoa;



(b) burututako balizko legez kontrako jardueraren zehaztasunak eta, bereziki, eduki edota zerbitzu zehatzen adierazpen argia, baita kokapena ere.

(c) Eduki, Zerbitzu edo jarduera horien legez kontrako izaera adierazten duten ekintzak edo gorabeherak;

(e) erreklamazio-gilearen ardurapean egindako adierazpen argi eta berariazkoa esanaz jakinarazpenean emandako informazioa zehatza dela eta edukiak edota zerbitzuak erabiltzea edo azaldutako jarduerak egitea legez kontrakoa dela dioen adierazpena.

Jakinarazpen hauek helbide honetara bidaliko dira: abuse@telefonica.es; bestela, webgune honetan horretarako dagoen inprimakia bete beharko da <http://www.movistar.es/nemesys/>.

14. - INDARRALDIA.

MOVISTAR-en eta BEZEROAREN arteko akordioa zerbitzuan alta egiten den egunetik aurrera sartuko da indarrean, eta une horretatik aurrera akordio hau eraginkorra izango da. Akordioaren hasierako iraupena urte batekoa (1) izango da. Akordioa berez luzatuko da, betiere, BEZEROAK akordioa iraungitzeko asmoa duela adierazten ez badu, gutxienez, hasierako iraupena amaitu baino egutegiko bi (2) egun lehenago, eta MOVISTAR-ek iraungipenaren berri ematen ez badu, gutxienez hil bat (1) lehenago.

15. - BUKAERA.

15.1. - Ebazpena.

Kontratu hau ondoko arrazoiak direla eta suntsiaraziko da, alde batek zein besteak horrela eskatuta: Zuzenbidean onartutako arrazoi orokorreatatik, Baldintza hauetan ezarritako arrazoiengatik, eta, berariaz, honako hauengatik:

a) BEZEROAK berak hala erabakita, MOVISTAR-i era sinesgarri batean jakinarazi ondoren, gutxienez ondorioa izan baino bi egun lehenago. Ondorio horietarako, honako hauek hartuko dira, bereziki, bide fede-emailetzat:

- Faxez: 902 104 132.
- Postaz: 1000 posta-kutxa. 08080. Bartzelona.
- Telefonoz: 1004 zenbakia.

b) MOVISTAR-ek zerbitzua egiteari utzi diolako, lagapena aurreikusi baino hogeita hamar (30) egun lehenago BEZEROARI jakinarazi ondoren.



c) Beste aldearen betebeharrak ez betetzeagatik, betiere baldin eta ez betetzea zuzentzea eskatuz beste Aldeak gehienez idatziz egindako eskaeraren osteko zazpi eguneko (7) epean ez betetze hori zuzenduko ez balitz, nola eta ez betetze hori zuzendu ezintzat jotzen ez den edo alde salatzaileak honako hitzarmen hau betetzea ezinezko bihurtzen ez duen; horrelakoetan, ebazpena berehalako izan ahal da. Dena dela, hori guztia aldeetako edozeini egokitu dakizkiokeen kalte edo galderengatik egindako erreklamazioa salbuetsita egingo da, eta baita 5.7. klausulan aurreikusitako Zerbitzuak eskuratzea kendu eta eteteko ahalmena ere.

15.2. - Ondorioak.

Baldintza Orokor hauen xede den zerbitzuaren prestazioa amaitutakoan, MOVISTAR-ek bezeroari fakturatuko dio, hala dagokionean, azken hileko kuotari dagokion zatia, baja indarrean sartutako dataren arabera, 14. klausulan xedatutakoari kalterik egin gabe.

16. - JAKINARAZPENAK

Kontratu honetan aurreikusitakoaren arabera eta hura betetzeko, BEZEROAK MOVISTAR-i egin behar dizkion jakinarazpenak telefono bidez egingo dira MOVISTAR-en arreta pertsonalerako zenbakien bidez, edo idatziz, kontratu honetan zehar eta, bereziki, 19. klausulan aurreikusitako posta-kutxetara edo posta-helbideetara.

MOVISTAR-ek BEZEROARI egiten dizkion jakinarazpenak eta komunikazioak modu hauetakoren batean egingo dira:

(a) kontratazioa egitean BEZEROAK horretarako adierazitako posta-helbidera bidalita. Adierazi ezean edo hasieran adierazitako helbidearen aldaketarik jakinarazi ezean, ondorio guztietarako, BEZEROAREN helbidea zerbitzua ematen den tokia dela ulertuko da, eta bat baino gehiago badira, horietako edozein;

(b) posta elektronikoz bidalita, ahal dela, BEZEROAK MOVISTAR-i horretarako ematen dizkion edozein helbide elektronikora;

(c) telefonoz edo SMS bidez jakinarazita, hala badagokio, bai BEZEROARI ZERBITZUA ematen zaion telefono-zenbakira, bai BEZEROAK ZERBITZUAN alta eskatzeko inprimakian adierazitako telefono-zenbakira, edo BEZEROAK, Baldintza honen arabera, geroago aldatutako telefono-zenbakira;

d) bezeroaren "Mi Movistar" gune pribatuaren bidez jakinarazita, zeina www.movistar.es webgunearan edo "Mi Movistar" aplikazioaren bidez atzi daitekeen, edo horien ordean erabiltzen diren izenen bidez.



Zentzu horretan, BEZEROAK adierazten du berak emandako datu guztiak egiazkoak eta zuzenak direla, eta konpromisoa hartzen du MOVISTAR-i bere etxean edo beste edozein helbide edo harremanetarako datuetan, kobrantza-datuetan eta MOVISTAR eta BEZEROAREN arteko kontratu-harremana kudeatu eta mantentzeko beharrezkoa den beste edozein informaziotan gertatzen diren aldaketak jakinarazteko.

17. - EZAR DAITEZKEEN LEGEAK

Kontratu honetako zerbitzuak egitean, Espainiako legeak beteko dira.

18.- GATAZKAK KONPONTZEA

18.1. -

BEZEROAK MOVISTAR-en aurka erreklamazio bat jarri ondoren, hilabeteko epean ebatzi ez bada edo onartu ez bada, BEZEROAK erreklamazioa aurkeztu ahal izango dio Telekomunikazio eta Azpiegitura Digitalen Estatu Idazkaritzari (SETID) edo haren ordezkari, MOVISTAR-en ebazpena eman eta hiru (3) hilabeteko epean, edo MOVISTAR-ek arbitrajea onartzen ez duela jakinarazten duenetik erantzuteko duen hilabeteko (1) epea bukatzen denean, betiere arbitraje-eskaera MOVISTAR-en ebazpenaren ondoko hiru (3) hilabeteko epean edo erantzuteko duen hilabeteko (1) epea amaitzean gauzatu denean.

18.2. - MOVISTAR eta BEZEROA une bakoitzean eskumena duten epaitegien eta auzitegien pean jarriko dira, indarrean dagoen legeriak xedatutakoaren arabera, Baldintza Orokor hauen xede den zerbitzua egitean sor litezkeen eztabaidetan.

19.- BEZEROARENTZAKO INFORMAZIOA

MOVISTAR-ek kontratu honen edukia jarriko du bere Interneteko orrian, idatziz, BEZEROAK horrela eskatzen badu, laguntza komertzialeko telefonoan (1004 bezero partikularrentzat eta 1489 ETE, negozio eta profesionalentzat) eta Movistar-en saltokietan. MOVISTAR-ek arreta egiteko kanal hauek jarri ditu:

BEZERO PARTIKULARRAK

- Arreta pertsonala eta Matxuretarako Arreta
 - 1004 (24 ordu egunean eta dohainik)
 - www.movistar.es



- Kontratazio-bideak:
 - 1004 (24 ordu egunean eta dohainik)
 - www.movistar.es
 - Movistar-en saltokiak
 - Banaketa-bideak.
- Erreklamazioak
 - www.movistar.es
 - 1004 (24 ordu egunean eta dohainik)
 - Gran Vía 28, 28013, Madril.
- Datuen babesa: Datu pertsonalen inguruan eskubideak erabili ahal izateko, 1004 telefono-zenbakian nola jokatu adieraziko zaio BEZEROARI, hain zuzen, idazki bat bidali beharko dio MOVISTAR-i (Datuen Erref.: 46.155 posta-kutxa – 28080 Madril), bere NANaren fotokopia aurkeztuta.

ETEak, NEGOZIOAK ETA PROFESIONALAK DIREN BEZEROAK

- Arreta pertsonala eta Matxuretarako Arreta
 - 1489 – Erantzun profesionala
 - www.movistar.es
 - Kontratazio-bideak:
 - 1489
 - www.movistar.es
 - Erreklamazioak
 - 1489 – Erantzun profesionala
 - Datuen babesa: Datu pertsonalen inguruan eskubideak erabili ahal izateko, arreta egiteko kanaletan nola jokatu adieraziko zaio BEZEROARI, hain zuzen, idazki bat bidali beharko dio TELEFÓNICA DE ESPAÑA, S.A.U. enpresari (Datuen Erref.: 37.013 posta-kutxa – 08080 Bartzelona), erabiliko duen ordezkartzaren egiaztagiria aurkeztuta.
-
- **ENPRESA HANDIAK**
 - Arreta pertsonala:
 - 900.120.900



- **www.movistar.es**
- Matxurak:
 - 900.111.002
- Kontratazio-bideak:
 - **www.movistar.es**
 - Enpresen Salmenta Sarea
- Erreklamazioak
 - 900 120.900

Datuen babesa: Datu pertsonalen inguruan eskubideak erabili ahal izateko, arreta egiteko kanaletan nola jokatu adieraziko zaio BEZEROARI, hain zuzen, idazki bat bidali beharko dio TELEFÓNICA DE ESPAÑA, S.A.U. enpresari (Datuen Erref.: 37.013 posta-kutxa – 08080 Bartzelona), erabiliko duen ordezkariaren egiaztagiria aurkeztuta.

▪ **ENPRESA HANDIAK**

- Arreta pertsonala:
 - 900.120.900
 - **www.movistar.es**
- Matxurak:
 - 900.111.002
- Kontratazio-bideak:
 - **www.movistar.es**
 - Enpresen Salmenta Sarea
- Erreklamazioak
 - 900 120.900

Datuen babesa: Datu pertsonalen inguruan eskubideak erabili ahal izateko, arreta egiteko kanaletan nola jokatu adieraziko zaio BEZEROARI, hain zuzen, idazki bat bidali beharko dio TELEFÓNICA DE ESPAÑA, S.A.U. enpresari (Datuen Erref.: 37.013 posta-kutxa – 08080 Bartzelona), erabiliko duen ordezkariaren egiaztagiria aurkeztuta.



I. ERANSKINA.- ZERBITZUAREN PREZIOAK

I. **Kobreko** sarbidetarako merkaturatutako aukerak

	Alta emateko kuota	Hileko kuota
ADSL Máxima Velocidad	0 €	46,90 €
ADSL Máxima Velocidad + TP Llamadas a Fijos Nacionales⁽¹⁾	0 €	47,00 €
ADSL Máxima Velocidad + TP Llamadas a Fijos Nacionales⁽¹⁾ + Bono FM 500 min Fin de semana + Bono FM 50 min Horario Total	0 €	52,00 €
	Alta emateko kuota	Hileko kuota
DSL Simétrico 1M	0 €	121,00 €
DSL Simétrico 1'5M	0 €	181,50 €
Empresas Class	0 €	252,08 €
Empresas Avanzada	0 €	403,33 €
Empresas Premium	0 €	564,67 €



II. **Fibran** merkaturatutako aukerak

	Hileko kuota
Fibra Óptica 100 Mb ⁽²⁾	46,90 €
100Mb con Llamadas a fijos ⁽²⁾	47,00 €
100Mb con Llamadas a fijos ⁽²⁾ y a móviles (Bono FM 500 min Fin de semana + Bono FM 50 min Horario Total)	52,00 €
Fibra Óptica 600 ⁽³⁾	56,90 €
Fibra Óptica 600 + TP Llamadas a Fijos Nacionales ⁽¹⁾ + Bono FM 500 min Fin de semana + Bono FM 50 min Horario Total ⁽³⁾	57,00 €
Fibra Óptica 10 Mb ⁽²⁾	46,90 €

Beste kontzeptu batzuk	Kuota
ADSL Routerra instalatzeko kuota	48,290 €
Zuntza instalatzeko kuota	157,30 € ⁽²⁾⁽³⁾
Direccionamiento IP estático (hautazkoa)	30,00 €

(1) Tarifa Finkotik kanpo gelditzen dira tarifa bereziko zenbakietara (902, 901, 060, 0XY, 118AB, besteak beste) eta tarifakazio gehigarriko zenbakietara (905, 80X) egindako deiak. Kontrataturako produktua barne hartzen duen frankizia gainditzen duten mugikor nazionalerako dei finkoek honako kostu hau izango dute: deiezarpena: 0,2892 €, (0,35 € BEZa barne) eta minutuko prezioa: 0,2066 €, (0,25 € BEZa barne).

(2) Zerbitzua 12 hilabetez indarrean izateko konpromisoarekin bada, zuntz optikoaren instalazioa egiteko kuota (157,30€, 130€ BEZ gabe).



(3) Zerbitzua 12 hilabetez indarrean izateko konpromisoarekin bada, zuntz optikoaren instalazioa egiteko kuota (157,30€, 130€ BEZ gabe).

OHARRAK

- Aurreko kuota guztiak BEZa barnean hartuta (Penintsulan eta Balear uharteetan %21 BEZ, Ceutan %10 IPSI, Melillan %8 IPSI eta Kanarietan %7 IGIC).
- Alta egiteko kuotak zerbitzua aktibatzeke prezioa du barnean.
- Konektibitateko ekipamenduen alokairuaren prezioak, barruko kableatuaren eta mikroiragazkien kuotak, eta zerbitzuko aukera gehigarriak une bakoitzean ondoko URLean argitaratutako eskaintzaren arabera fakturatuko dira: www.movistar.es.